


# ttipi ttapa

2003ko urriaren 30a • XXIII. urtea



**Saray elkarreak  
bulegoa Elizondon**

03

Baztan-Bidasoa aldean bularreko minbizia duten emakumeei laguntza emateko bulegoa ireki du Elizondon Saray elkarreak. Amaia Arotzarena psikologarekin izan gara.



**Lurraren Eguna  
azaroaren 2an**

09

Hauteskundeak direla eta eguna aldatu bada ere, urtero bezala ekitaldiz betea heldu da XVII. Lurraren Eguna. Azaroaren 2an eginen da Berako karriketan.

## 04 Kirikoketa Eguna Azaroaren 1ean Elizondon



# MUEBLES METS



LARUNBAT  
ARRATSALDETAN  
EREKIA

**Sarrera**  
**BERA**tik da  
*Sastrin karrika,*  
3.2 - 3.4 Alkaiaga  
**31789 LESAKA**

*Tfnoa. 948 630 537*  
*Fax. 948 631 443*

BISITATU GURE  
WEB ORRIA

[www.mueblesamets.com](http://www.mueblesamets.com)

*Sukaldeak*  
*Egongelak*  
*Logelak*  
*Bainugelak*

**4000 m<sup>2</sup>**

**erakusketa**  
**AUKERA HANDIAK**

Urte guzian  
ofertak  
Kontsultatu  
prezioak



Zure  
erosotasuna  
zaintzeko  
besaulki  
aukera zabala





## DATUAK...

- Bularreko minbizia duten Nafarroako emakumeak biltzen ditu SARAY elkarteak. Baztan-Bidasoaldeko emakumeei zerbitzua eskaintzeko bulegoa ireki du Elizondon.
- Amaia Arotzarena Martinikorena, guraso baztandarrak dituen iruñearra da bulego honetako psikologoa.
- Hameka emakumetatik batek bularreko minbizia izateko arriskua du eta Nafarroan 270 kasu berri agertzen dira urtero, batez ere 45-69 urte bitarteko emakumeen artean.



**Amaia AROTZARENA** SARAY Elkarteko psikologa

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

# «Bularreko minbizia izan dutenekin solastean egoera desdramatizatzen da»

Aitor AROTZENA

**Zein izaten da bularreko minbizia diagnostikatu zaien emakumeen kezka nagusia?**

Berria jasotzen dutenean, lehendabiziko gauza heriotzari beldurra izaten da, noski. Baina kontuan hartu behar dute bularreko minbizi kasuen %70 sendatzen dela. Bertze zenbait arazo ere sortzen dira: eritasuna gordetzea, autoestima galtzea, depresioak eta bertzelakoak. Familiarekin eta bikotearekin harremana ere aldatzen da. Horregatik, Saray elkartearen elkar laguntza eskaini nahi da, egoera horretatik pasatutako emakume gehiagorekin biltzen baitira bai afektatuak baita senideak ere.

**Minbiziak, beraz, erari ez ezik in-gurukoei ere eragiten die...**

Emakumeak zaindari papera betetzen du normalki, bera da etxeko arima eta egoera honetan, aldiz, bera da zaindutakoa. Horrek ere sortzen du ezinezona emakumeengan, ez baitu nahi izaten bertzeek etxeko lanak egitea, erosketara joatea... Horregatik, Saray elkarteak laguntza soziologikoa ere eskaintzen du, familia

**«Estetika eta irudiaren gizartean bizi gara, gorputz perfektua gurtzen dugu, baina emakumeak bi bular baino gehiago dela konturatu behar du»**

artekoei, bikoteari, lagunei... eritasun hori duen emakumea ulertzeko eta tratatzen jakiteko.

**Estetika aldetik ere, emakumeengan kezka sortuko du bularra galzteak...**

Bai. Estetika eta irudiaren gizartean bizi gara, gorputz perfektua gurtzen da, baina emakumeak bi bular baino gehiago dela konturatu behar du. Gainera, mastektomia egin edo bularraren zati bat kentzen den kasuetan ere berehala berritzen ahal da, gaur egun kirurgia aunitz aitzindu da. Halere, emakumeari zerbait falta zaio la iruditzen zaio, ez dela emakume osoa, sexualitatean ere eragiten du. Hortatik pasatu diren emakumeekin solasterakoan egoera desdramatizatzen da. Gogorra eta kezkarria izaten segitzen du, baina orain arras

ongi ikusten dituzun eta bere garaian bularreko minbizia izan zuten emakume horiekin konpartitzea garrantzitsua da. Saray elkarteak bizi-kalitatea hobetzen laguntzen die emakume hauei.

**Herri ttiketian hirietan baino gehiago gordetzen da eritasun hau?**

Hirietan sakabanatuagoa bizi gara eta hurbilekoek bakarrik dakite eritasunaren berri. Herrietan aldiz, denek elkar ezagutzen dute eta minbizi duen emakumeak uste ez badu ere, mundu guziak daki horren berri, presio soziala handiagoa da. Halere, zaila egiten zaio gurea bezalako zerbitzuetara hurbiltzea. Horregatik, hiriburutik herrietarako deszentralizazioan ari gara, jende guziak etxetik hurbil izan dezan. Zerbitzua doan eskainiko da.

**Noiz eta nola eskainiko duzue zerbitzu hau?**

Asteazken goizetan, 9:00etatik 13:30etara egonen gara Elizondoko Santiago karrikako 58an, Bidelagun elkarteak eskuzabal utzi digun bulegoan. Hitzordua hartzeko telefono zenbakia 657 818703 da.



ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI

Oianko Garde, Xabi Torres eta Txomin Petrikorena, kirikoketarekin Gamixarrean.

Larunbat honetan, azaroaren leian, ospatuko da Elizondon hirugarren aldiz Kirikoketa besta. Jo ala Jo kultur taldeak antolatutako egitarau zabala izanen da egun osoan. Horren aitzakian eta musika tresna berezi honen inguruan gehiago jakiteko, talde honetako hiru kiderekin, Oianko Garde, Xabi Torres eta Txomin Petrikorenarekin bildu gara. Urte batzuk badaramazkitez kirikoketa jotzen hiru gazte hauek. Sagardoaren mundutik datorren tresna hau euskaldunon artean historikoa dela erran digute. Sagarra xehetzeko erabiltzen zen tresna eta behin sagardoa egina zenean, probatzera etortzeko deia luzatzen omen zitzaizen auzotarrei.

LANA ETA BESTA UZTARTZEN DITUEN AITZINAKO TRESNA

# Kirikoketa Eguna ospatuko da azaroaren 1ean Elizondon

**Joseba OLAGARAI**

Sagardoaren mundutik datorren tresna hau «lan egiteko erritmo baten onomatopeia» dela diote Jo ala Jo taldeko Oianko Garde, Xabi Torres eta Txomin Petrikorenak. Sagardoa egiteko prozesuarekin arras lotua dagoen lan eta musika tresna da, beraz, kirikoketa. Xabi Torresek erran digunez, «XVII. mendean lan gogorra zen sagardoa egitea. Orduan, sagardoa zanpatzen astebete edo gehiago aritzen ziren, gau eta egun. Lana arintzeko kirikoketa hartzen zuten eta erritmoa jartzen zuten. Hiru pertsonak beraien mazekin patsola joz hartzen zu-

ten erritmoa izaten zen kirikoketa». Erritmoa hobe hartzeko ere bere kanta bazuen kirikoketak. Kolpe bakoitzeko silaba bat sarturik honela dio lelo horrek:

*Kirikoketa kirikoketa  
kirikoketa koketa koketa  
sagarra jo dela  
sagarra jo dela  
sagarra jo dela  
jo dela jo dela.*

Hori zen sagardo egitearen lana. «Baina behin lana akituta, –dio Torresek– prentsatzeko erabiltzen ziren ohol horietako bat (patsola) hartu eta bestarako jotzen zuten, sagardoa prest

zela abisatzeko eta auzokideei dastatzera gonbidatzeko». Beraz, bi arloak uztartzen zituen, lana eta besta. «Patsola, mazak eta hiru lagun bertzerik ez dira behar kirikoketa jotzeko. Baina bi lagun edo laurekin ere jotzen ahal da, lanean ari diren pertsonen arabera. Horrek erritmo bat edo bertzea eramatera bultzatzen zaitu». Erritmoa jartzea gizakiaren dohai naturala dela uste dute taldekideek, «hemen, Afrikan edo Indian egiten dena». Eta erritmoa da hain zuzen, kirikoketa txalapartatik ezberdintzen duena, Txomin Petrikorenak dioenez: «txalaparta bi denboratan zatitua da-

go, erritmo binarioa da eta kirikoketa hiruk jotzen dute, erritmo ternarioa da. Nik txalaparta ikasi nuen lehenik eta gero zail egin zitzaidan chip-a aldatzea».

Aspalditik galdua zegoen tresna hau nola berreskuratu duten galde egin diegu Jo ala Jo taldeko kideei. Oianko Gardek aipatu digunez, «txalaparta ikasten hasi ginen Patxi Larralderekin eta handik etorri zen dena. Bera izan zen kirikoketa jotzera bultzatu gintuena. Bere gain ikerketa batzuk ere egin zituen, jende arras helduarekin solastuz, sagardoa egiten zen etxeetara ganez... hortik jakin genuen kirikoketaren historia».

### AZAROAREN 1EAN, HIRUGARREN KIRIKOKETA BESTA ELIZONDON

Bi urteko geldialdiaren ondotik, aurreten berriz ere Kirikoketa Besta antolatatu du Jo ala Jo taldeak. Egun hortan duela hirurehun urte sagardoa nola egiten zen erakusten dute. «Ez dugu harrizko dolarea eramaten ahal, noski, baina egurrezko kutxa tail batean sagarra zanpatzen dugu, patsa prentsatu eta sagar zuku jendeari ematen diogu probatzeko». Dolarea duten Baztango etxeei omenaldia ere egin izan diote aitzineko urteetan, Arizkun eta Erratzun, bertara gan eta kirikoketa joz. Baina Oianko Garderen ustez, «nekagarria izaten da eta aurreten kendu egin dugu eta ekitaldi guztiak Elizondoko plazan izanen dira arratsaldeko 4:30etatik aitzin. Animatu!». Arizkun eta Erratzuko sagar dantza eginen dira, kirikoketa besta, taloak, gaztainak, Gallartako dantzariak ere hango sagar dantza eginen dute. Arratsean afaria, Pottoka eta Ufestuek taldearekin kontzertua, Baztango bertsolariak eta burrunbada izanen dira.

## KIRIKOKETA-TXALAPARTA-TOBERA

Kirikoketari buruzko hainbat erreferentzia badira, bertzeak bertze Juan Mari Beltran Herri Musikako Dokumentazio Zentruaren zuzendariak argitaratutako «Euskal Herriko Soinu Tresnak» CD-Romean, baita honen artikuloren batean ere. Gehienetan, txalaparta eta toberarekin lotua agertzen da. Juan Mari Beltranek dioenez, «bere itxura eta funtzioa ikusiz, oso zaharra dela pentsatzera garamatza; honela izango da, baina ez dugu antzinako berririk ohitura honen gain. Aita Donostia, Manuel Lekuona eta J.M. Barandiaran izan dira, nagusiki, hiru izenekin (eta hiru modu desberdinetan) agertzen zaigun soinutresna eta ohitura hauen antzinako aztarnak eta historiari buruz berri ematen digutenak». Aditu honen ustez, «Gipuzkoako Donostia-Urumealdea, Lasarte, Usurbil, Hernani, Ereñotzu, Urnieta, Altza-Intxaurren, Astigarraga, Ergobia, Andoain, Oiartzun, Orio, Bidania, Elduaien, Alkiza eta Nafarroan Lesaka eta Bidasoa-Baztanal-

dea izan dira garai batean ohitura hau ezagutu duten lekuak. Azkeneko garaietan jasan duen atzerakada kontuan harturik, suposa dezakegu lehenago beste zenbait tokitan ere ezagutuko zutela. Hirurogeigarren hamarkadan, bikote gutxi geratzen ziren eta hauek halako eskualdeetan:

Donostia-Urumea inguruan: Lasarte, Hernani, Astigarraga, Ergobia, Altza,...(txalaparta), Oiartzun, Lesaka (tobera) eta Bidasoa-Baztanaldean (kirikoketa)».

Jo ala Jo taldeak Arizkunenean jarri duen erakusketan, Baztanen sagardoa egiteko XVII. mendeko araudia ikusgai dago aste honetan.



### Txomin PETRIKORENA Jo ala Jo elkarteko kirikoketaria

“Arizkungo Gamixarrea moldatzen ari gara poliki-poliki, elkartearen egoitza egiteko”

**Zein da Jo ala Jo elkartearen lan moldea?**

Jo ala Jo Kultur Elkartearen sail ezberdinak ditugu eta zortzi lagun gara hor aritzen garenak: guk txalaparta eta kirikoketa jotzen dugu, bertze batzuk gaita eta txistua, badaude dantzak ere... Duela lau urte hasi ginen lanean.

**Orai elkartearen egoitza moldatzen ari zarete Arizkungo Gamixarrean...**

Patxi Larraldekin utzitako etxea da, bere arbasoena. Hemen sagardoa egiten zen eta guretako arras egokia da. Poliki-poliki ari gara, zaila baita denak biltzea. Bizpahiru etortzen badira, txalaparta pixko bat jo, etxea txukundu eta horrela aritzen gara. Hainbertze gauza moldatu beharko litzateke astean behin elkartuta, baina denborapasa gisara etortzen gara ahal dugunean.

**Eta herriz herri ere ibiltzen zarete kirikoketa jotzen?**

Deitzen diguten lekuan jotzen dugu. Sagardotegi denboraldiaren inaugurazioan jo izan dugu Lekarozko Larraldean eta Nafarroako bertze sagardotegietan ere. Bitxia eta berria iruditzen zaie. Txalapartari eta kirikoketariez gain, txistulari eta gaitariak ere ibili dira hor barna, bakoitza bere aldetik baita denak batean ere.



Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

## ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1  
E-31780 BERA (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88  
Faxa: (+34) 948 63 12 91

ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Aitor Arotzena.

**Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakek Goñi.

**Kolaboratzaileak:** Rakek Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leiza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Maletrrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

## Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 €
Espainia	25 €
Ipar Euskal Herria	35 €
Europa	35 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Leitzako Institutuko atezainaren inguruan

Leitzako Amazabal Institutuko Guraso Elkarteak, institutuko atezain lanpostua betetzeko prozedura dela eta, honako adierazi nahi du:

Oso kezkatuta gaude, eta baita hasarre ere, Leitzako Institutuko atezain lanpostua betetzeko deialdiarekin eta beronen ezaugarriekin; izan ere, institutuarekin zerkusia dugun guztioi, institutuarekin harremana dugun guztioi, gure eskubideak murriztu dizkigute. Arrazoia ezaguna da, eta, zoritxarrez, ohikoa nafar administrazioan: lanpostuaz jabetzeko ez da euskararen ezaugarrik eskatu.

Jakina da institutua-

ren inguruan gabiltzan guztiontzat, baina baita institutu honen berri duen edonorentzat ere, euskara dela ikastetxe honetan ohiko eta eguneroko hizkuntza. Zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza da, baina, batez ere, ikasle, irakasle, langile eta gurasoen komunikaziorako eta harremanetarako ohiko eta eguneroko hizkuntza. Institutuan euskaraz bizi gara.

Euskaraz bizi den komunitate edo giza talde batean, eta euskara normaltasunez erabiltzeko ahalegin handia egin duen komunitate batean, euskaraz ez dakien langilea sartzeak dituen ondorioak argiak eta logikoak dira: erdararen erabilera biderkatu egiten da, eta euskararen normalizazioan oztopo bihurtzen da. Baina ez

da hori, akaso, larriena. Larriena da euskara erabiltzeko borondatea dutenei eskubide hori urratu egiten zaiela, atezainarekiko harremanari dagokionean behintzat.

Ikasle, irakasle eta gurasoek institutuan euskara erabiltzeko eskubide dugu. Atezaina erdalduna izateak, ordea, eskubide hori galeratzen du, ezereztzen du. Ahalegin handia egin da Leitzako ikastetxeetan ere, herrian egin den bezala, euskara bertako lan eta zerbitzu hizkuntza bihurtu dadin, eta ez da atzera egiten hasteko unea, gure ustez; eta gai hau ez da txikikeria bat, jende askoren lana eta izerdia eragin baitu euskara normaltasunez erabiltzera iristeak.

Egoera tamalgarri honen ardura eta erantzukizuna, gure ustez, Na-

farroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko arduradunena da, eta haiei dagokie konponbidea bilatzea. Guri dagokiguna da gure eskubideen defentsa egitea, kasu honetan hizkuntza eskubideen defentsa, eta horren ondorioz eskaera argia egin nahi dugu: Leitzako Amazabal Institutuko atezaina euskalduna izan dadila, institutuko bizitza, oso-osorik, euskaraz egiten jarraitu ahal izan dezagun.

Esan bezala, beraz, egoera honi irtenbidea bilatu behar zaio, eta horretarako urrats eragin-korrak lehenbailehen har daitezen eskatzen dugu, hizkuntza eskubideen betetzean inor kaltetua gertatu ez dadin.

**Leitzako Amazabal Institutuko Guraso Elkarteak**

**UDALBILTZA®**  
EUSKAL HERRIKO UDAL  
ETA UDAL HAUTETSIEEN BILTZARRA

**UDALBILTZA®k,**  
denon giza-eskubide guztien alde egonik,  
Euskal Herriko herrien arteko senidetze  
programa berezia abiarazi du: **HURBILTZEN**

www.udalbiltza.info.com

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Berria 2003-10-15

«Duela bizpahiru urte txapelketa utzi nuen, baina bertsolaritza ez dut inoiz utzi. Ez nago erretiroan, bertsolaria ez baita inoiz erretiratzen. Gehiago kantatuko du, gutxiago kantatuko du, maila batean edo bestean, baina beti bertsolari. Bertsolariak beti egon behar du bertsoa botatzeko prest. Gaiak egiten ibili naiz, eta bertso kantari ere bai, txapelketaz kanpo».

Manolo AROZENA  
Lesakako bertsolaria  
Berria 2003-10-15

«Genituen buru hoberenetakok hil dizkigute. Behietako bati hilabete terdi gelditzen zitzaion erditzeko. Horrelako gaiztakeri bat beti gaizki dago, baina abeltzain batendako arras mingarria da». «Aziendak aseguruak ditugu, kalteak sortzen badituzte edo bidera ateri eta istripua sortzen baldin badute. Baina nork espero du tiroz hiru behi eta zezena hiltzea? Ikaragarria da!»

Patxi ETXEBERRIA  
Amaiurko abeltzaina  
D. Noticias 2003-10-21

• 11 GALDERA LABUR •

**Bergara, Zalain Zoko edo Aurtiz?**  
Bergaran bizi naiz, ama Zalain Zokoa dut eta asteburuero Aurtizen izaten naiz. Ez dakit, baina Aurtiz aukeratuko nuke.

**Zer dute Aurtizko bestek, Bergarakoek ez dutenik?**  
Jendea alaiagoa eta jatorra dela.

**Zein da Aurtizan egin duzun bestarik hoberena?**  
Hoberena jaixetan, joan den urtean.

**Juergazale amorratua zara. Zein da zure estrategia horrelako juergak egiteko?**  
Giroa, momentua eta edaria.

**Aurtizko txokorik politena?**  
Enbalsea.

**Eta norekin egoteko?**  
Lagunekin egoteko.

**Irakasle edo ikasle?**  
Irakasle.

**Zein da zuretzat Aurtizko beste-tako egunik hoberena?**  
Ostirala eta larunbata, baino gehio ostirala kuadrillan aforia izaten dugulako.

**Plazako musika, ostatuko musika edo zuk gaupasa eta gero egiten duzun di-na?**

Dudik gabe nik egiten dudan di-na, hori giroa!  
**Zer da gehien eginen duzuna bestetan?**  
Ondo pasau, gutxi gastau eta asko ligau.  
**Definitu zure burua.**  
Alaia, irekia, juergazalea.



**Eneritz ZABALETA**  
*Bergarako aurtiztarra*

« **USOA** »  
NEKAZARI KOOPERATIBA  
Ganaduarentzat pentsurik egokiena  
Tfnoa: 948635214  
**ETXALAR**

**ANJA**  
Janaridenda  
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

**XATURETXEA**  
Zafra JATETXEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

**Pinpirin**  
ILEAPAINDEGIA  
Aitziber Ubiria Santesteban  
Plaza Zaharra 26 • LESAKA • Tel: 948 638037

**LESAKA**

**ERROTAZAR**  
**Harategia**  
Eztegara 3  
Tfnoa: 948 630 198  
**BERA**

**ZENTRU LOGOPEDIKO-PEDAGOGIKOA**  
Nekane Ordoki Gonzalez

- ★ Ahozkapen zailtasuna
- ★ Gauzak kontatzeko zailtasuna
- ★ Irakurketa arazoak
- ★ Idazketa arazoak
- ★ Totaltasuna \*tartamudeo\*
- ★ Ahoz arazoak
- ★ Arnasketa arazoak

646 894 332  
Eztegara 6 • BERA

## LANA

# Zalaingo lantegiaren etorkizunari buruzko zalantzak argitu gabe

Condesak erosiko dio Arcelor-i baina lan ildoak zehaztu gabe daude

## ttipi-ttapa

Zalaingo lantegiaren etorkizunaz solasteko lehendabiziko bilera egin zuten urriaren 15ean lantegiko sindikatuek eta Arcelor eta lantegi hau erosteko asmoa duen Condesa enpresako ordezkariak. Erosketa gauzatzeko, bi enpresarako Administrazio kontseiluek onartu beharko dute eta badi- rudi azaroaren edo abenduaren gertatuko dela hori.

Urriaren 15ekoa lehen hartueman berterik ez zen izan, Condesak lantegia erosi eta lau hilabeteko epean egingen den Plan Estrategikoan jakinen baita zehatzago etorkizunean Zalaingo lan ildoak zein izanen diren. Beraz, plan honek langileen baldintza ekonomiko eta sozialetan zer eragin izanen duen inguruko zalantzak ez dira argitu oraindik. Badi- rudi tubo kalibratua Zalaingo lantegiaren inbertsio gehi- go egiteko asmoa du-



ARTXIBOKOA

Condesa izanen da Zalaingo lantegiko jabe berria.

la Condesak eta hau berri ona litzateke. Bertze aldetik, enpresa honek Legutien duen lantegian tubo estrukturala egiten da eta bikoiztasuna ez gertatzeko eta konpetentzia ez egiteko aterabideak bilatu nahi ditu Condesak.

Bertze kezka iturria Zalaingo tubo lantegia eta Lesakako lantegia- ren arteko harremana

da, azken honek Arceloren eskuetan segituko baitu. Gaurko egunean, Zalaingo lantegia Lesakatik hartzen du materiala, 175.000 Tona inguru urtean. Condesako ordezkariak aipatu zuten, orain arteko hornikuntza ona izan da eta etorkizunean ez dute aldatzeko premiarik ikusten. Beraz, materiala Arcelor-i

erosten segitzeko asmoa dute eta Arcelorek erabaki beharko du material hori non egin. Dena den, arestian aipatu bezala, Condesak egingen duen Plan Industrialean zehaztuko da Zalaingo lantegiaren eta langileen etorkizuna. Honen inguruko kezka agertzeko elkarretaraztea egin zuen ELAK Lesakan urriaren 14an.

## INGURUMENA

## Artesiagan zundaketak egiteko baimena ukatu du Baztango Udalak

Artesiagako magnesita meatokian zundaketak egiteko baimena ukatu dio Baztango Udalak Magnesitas de Navarra enpresari. Baztango Udalaren ustez, zundaketek herri lurretan bazkatzen duten aziendei kalte handia eraginen lieke. Gainera, Erdizaga inguruan ingurumen inpaktu handia sortuko luke. Lehendik egin diren zundaketen kalteak egoki moldatzeko ere eskatu zaio Magnesitas-i.

Bertze aldetik, Gurelur elkarte ekologistak Artesiagako harrobia egiteko proiektua baztertzea eskatu dio Nafarroako Gobernu-ko Ingurumen Departamenduari, «Europa-ko babesa duen inguru batean kalte ikaragarriak eta itzuliezinak eraginen litzukeelako».

© 948631076 • BERA

**GOYA**  
JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK  
Altzate, 5 • © 948630083 BERA

**Lanchas**  
PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEA  
ESTALDURA OROKORRIAK  
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

TEL K  
K MISET K  
ISE  
K MISKEI X  
N HI UZUNK U U, NEU I ET (ISENU) ERIN  
Ezt r z h T l- F x 3 15 21

**ZUBIONDO JATETXEA**  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
saqardotegia jatetxea saqardotegia

**ZJ**  
**Zalain**  
jatetxea  
© Zalain S.L. • Tel. 948 63 09 67  
Bera - Nafarroa



**BERA**

## Hamazazpigarren Lurraren Eguna beranduxeago baina seguru

Bezperako musika ere ez da faltatuko aurtengoan

**Amaia eta Ainhoa**

Normalki urriaren azkeneko asteburuan egiten den Lurraren Eguna, aurtengoan hauteskundeak direla eta azaroaren 2an ospatuko da. XVII. Lurraren Egun honetarako Gure Txokoa Elkarteak, Berako Udala eta Kultur Batzordearen laguntzarekin, programa bete bete prestatu du. 10:00etatik aintzinerat Bortzirietako produktuak erakusgai eta salgai egonen dira Altzaten eta Ricardo Baroja Eskolako atarian. Eguraldi ona egiten badiu Altzaten eta euria eginez gero Toki Ona kiroldegian eta Altzateko Frontoian, 90 eskulangile baino gehiago ikusi ahal izanen dira egurra, buztina, larrua, beira, sendabelarrak, elikagaiak eta bertzelako eskulanak erakusten, lantzen eta saltzen. Goiz eta arratsaldez ere doinu desberdinak aditzez aukera izanen da:

txalapartariak, trikitilariak, txistulariak, banda, akordeoilariak, perkusioa... Gasna eta sargardo lehiaketan sariak 17:00etan banatuko dira baina aintzinetik Amets Arzallus, Sustrai Kolina eta Julen Zelaieta bertsolarien saioa izanen da. Bezperan, 20:00tan, Pavka abesbatza ariko da eta gauerdian Bidaxka ostatuan Pettik kontzertua eskeiniko du.

**Jolasaren Mamia**

Azaroaren 4an Bortzirietako Euskara Komunitateak antolatuta Jolasaren Mamia ikastaroa hasiko da Toki Ona Kiroldegian. Ikastaro hau batez ere guraso, zaintzaile eta irakasleei zuzenduta dago. Fernando Saenz de Ugarte, Urtxintxako irakasleak, formatu handiko jokoak, Euskal Herrikoak, ipuinak eta bertze hainbertze gauza



ARGAZKIA: J. IRIGOIEN

**Auzolan N-121A ekimena**

N-121A errepideak Bortzirietatik Behobirako tartean duen egoera erriskuetsuaz kezkatuak egoera aztertu eta jarrera aktiboagoak hartzeko 80 bat bidasotar bildu ziren urriaren 13an Berako Kultur Etxean. Auzolan N-121A ekimena izena eman diote eta lehen prentsaurrekoa urriaren 17an eman zuten Enderlatsan Junkal Ortego, Erramun Martiarena eta Jose Luis Irigoien bozeramaileek. Azaroaren 5ean bertze batzar bat eginen dute Kultur Etxean eta bidasotar guzti-guztiak animatu nahi dituzte horretara agertzeko.

erakutsiko ditu haurrekin jolasteko. Astearte eta ortzegunetan, azaroaren 27a arte, emanen da ikastaroa 19:00etatik 21:30etara. 25 pertsonentzako lekua dago eta izena emateko bi modu daude: 948634125 telefonora deituz edo mezua bortziriak@eukalnet.net helbidera bidaliz.

**Berako Txistu Eguna**

Azaroaren 9an, igandean, Txistularien Eguna ospatuko da. Lehengo eta oraingo txistulariak elkartzeko asmoarekin besta egun hau ospatu nahi da. Goizeko 9:30etan Jamotenean elkartuko dira eta gero auzo eta baserrie-

tan barrena ibiliko dira kalejiran. 12:00etan Altzaten elkartu eta ondorengoan, 14:30etan Zubiondon bazkaria eginen dute. Besta honetan parte hartu nahi dutenek, urriaren 31 baino lehen 012ra deitu beharko dute izena emateko.

**Bera filme baten eskenatoki**

Urriaren bukaeran grabatuko da Beran *Friol de invierno* filmean zati bat. Pablo Malo zuzendari Donostiarraren gidaritzapean Unax Ugalde, Marisa Paredes, Javier Pereira, Marta Etura eta M<sup>a</sup> Jesus Valdés bezalako aktore ospetsuak ikusteko aukera izanen dugu.

**V. Kafe Antzerki Zikloa**


Berako Euskara Batzordeak antolatuta V. Kafe Antzerki Zikloa izanen da hiru asteburutan: urriaren 31n, azaroaren 7an eta 14an. Urriaren 31n, EBEL taldearen Baserritik baserrira ikusi ahal izanen da, azaroaren 7an Ramon Agirreren Zazpi gezur txiki eta azaroaren 14an Gilkitzaroren Elevator antzeslana.

**Erakusketa**

Angela Mejias eta Antonio di Bellonio argazkilariek Haurren Begiradak deituriko argazki erakusketa ikusteko aukera izanen da kultur etxean azaroaren 8a bitarte.

**SAROB**  
okindegia   
**SANDERS Pentsuak**  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiama, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.  
**Termita eta Polillen kontrako tratamendua**

  
© 948630155  
**BERA**

© 948 631 462  
Altzate I • BERA 

## LESAKA

# Hamar urte bete ditu kartzelan Iñaki Fagoaga herriko presoak

Hainbat ekitaldi egin dira urteurrena gogoratzeko

## Aitor AROTZENA

Iñaki Fagoaga preso lesakarrak kartzelan hamar urte bete dituela gogoratzeko hainbat ekitaldi egin dira egunotan. Hasteko, urriaren 11n kontzentrazioa egin zen eguerdian, Sakabana-ketarik ez! Euskal presoak Euskal Herrira lelopean. Arratsaldez solasaldia eskaini zuen Arranon Imanol Aranburu preso ohiak.

Urriaren 18an Dispersioaren aurkako futbol-7 txapelketa jokatu zen Mastegi futbol zelaietan.

Urriaren 24an, Benito Lertxundik kontzertua eskaini zuen Zambra aretoan. Biharamonean, larunbatean, ohiko mendi martxa egin zen Sastrinera eta bertan omenaldi-ekitaldia egin zen. Arratsaldez manifestazioa egin zen Etxean nahi ditugu! Lelopean. Segidan ekitaldi politikoa izan zen eta ondotik bideo emanaldia. Arratsean herri afaria egin zen Kattu jate-xean.

Carabanchel, Valdemoro eta Cuencako espetxeetatik pasatu ondotik, gaur egun Zaragozako Darocan dago preso Iñaki Fagoaga.



ARGAZKIA: AITOR

Urriaren 16an egin zen elizako bidean dagoen udal tanatorio berriaren inaugurazio ofiziala. Nafarroako tanatorio handienetakoa eta txukunenetakoa dela erran zuten. Ekitaldian, Lesaka, Bera eta Arantzako alkateak, Lesakako PNV-EA, Onin eta Herria Aitzinerako ordezkariak, eta Nafarroako Gobernuko eta Parlamentuko ordezkariak izan ziren, tanatorioa kudeatuko duen Ira-che taldeko presidenterekin eta Maldaerrega enpresako gerentearekin batera. Agintariez gain, hainbat herritar hurbildu ziren instalazioak ikustera.

## KULTURA

### Nafarroako historiari buruzko hainbat ekitaldi antolatu ditu Arrano Elkarteak

Nafarroako historia ezagutarazteko hainbat kultur ekitaldi prestatu ditu Orreaga elkarteak herriz herri. Lesakan, Arrano elkarteak udalaren laguntzaz arduratu da antolakuntzaz. Honela, azaroaren 10etik 15era, astele-

henetik larunbatera, «Nafarroako historia berria dokumentu klandestinoetan» izeneko erakusketazabalduko da Herriko Etxean, 17:00etatik 20:00etara. Azaroaren 14an, ortziralarekin, «Nafarroako komunikabideak Na-

## FLASH

### Geriatría ikastaroa azaroan

Lesakako Herri Eskolak, Nafarroako Emakumearen Institutuaren eta Udalaren laguntzaz geriatría ikastaroa antolatu du aurten ere. Amagoia Muruamendi geriatría medikua izanen da irakaslea eta azaroko lau asteartetan, 4, 11, 18 eta 25ean emanen da, 17:30etatik 19:30etara (zortzi ordu guzira). Portaeraren nahastea eta gatazkaren moldatzea izanen dira landuko diren gaiak. Izen ematea Izarra okindegian egin behar da 15 euro ordainduta.

### Autorik gabeko egunak bi ikastetxeetan

Irain eskolako eta Tantarumairu ikastolako Guraso Elkarteek bultzatuta autorik gabeko egunak egin zituzten urriaren 22 eta 23an. Herrian bizi diren ikasleak ttipi-ttapa oinez hurbildu ziren ikastetxeetara eta baserri auzoetakoak berdin, autoa aparkalekuetan utzi ondotik.

farroako historian» solasaldia eskainiko du Gaizka Arangurennek, 20:00etan Arrano Elkarteetan. Akautzeko, azaroaren 15ean, larunbata, bideo emanaldia izanen da 19:30etatik aitzinera honako gaien inguruan: 1967. urteko Aberri Eguna eta Maiatzak 1; Asktasunaren Martxa eta Monteju-rrako gertakariak.

GLORIA ARIZTEGUI HUARTE

ARKITEKTOA

Tel. LESAKA: 948 63 70 68

Mug: 635 75 77 32

e-mail: aariztegui@arquired.es

IGEL ARKITEKTURA BULEGOA · ETXE ERAIKUNTZA · HIRIGINTZA · ZAHARBERRITZEA

POKOPANDEGI BIDEA 9, 3. 20018 DONOSTI

FAX-TEL: 943 32 20 65



## ETXALAR

# Jende bizkorki ibili zen Usategietako Igandean eguraldi txarrari aitzin eginez

70 lagun bildu ziren «Gazte eta gazte sentitzen direnen afarian»

### Joseba eta Nerea

Eguraldiak sobera lagundu ez bazuen ere, jende andana mugitu zuen bertze urte batez Usategietako Igandean. Denbora batean zuen sona eta entzuterik mantentzen ez badu ere, anitz dira oraindik egun honen aitzakian Usategietako gaina bisitatze- ra etortzen direnak. Eta joan den igandean ere herritar nahiz kanpotar bisitari ugari ikusi ahal izan zen larmendiko parajetan. Goizean egiten zuen haize zakarra zela eta, usazaleek ez zituzten sareak paratu eta ondorioz ez zen hauen lana ikusteko modurik izan.

Arratsalde partean herrira jautsi zen besta eta Jalisko Band musika taldearekin dantzaldia izan zen 6etatik aitzinera. Hauen atsede-

naldian urteroko zozketa egin zen, aurten herriko dantzari eta pilotarien aldekoa, eta hiru saritik bi banatu ziren. Zorteak Behekozubira bidali zituen bi sariak: Lehenbizikoa, 12 uso bizirik Xabier Berrueta-rentzat eta TTIPI-TTAPA Telebistako bideo sorta, Juana Mari Arburuarentzat. Hirugarrena, herriko bestetako motozerra erakustaldian eginiko egurrezko irudiak, 300. zenbakiarentzat izan zen, baina momentuan ez zen ateri eta lerro hauek idazterakoan oraindik ez dugu irabazlearen izenik.

### Oinezko pasagunetan oztopoak kentzeko lanak

Herrian barrena ibiltzerakoan oinezkoak zenbait oztopo fisiko



ARGAZKIAK: JOSEBA OLAGARAI

Hiru belaunaldi bildu ziren Usategietako igandean larmendi inguruan.

aurkitzen ahal ditu, adinekoak edo haurren kotoxeak pasatzea zailtzen dituen. Oztopo hauek konpontzen saiatu da udala egin berri dituen obretan; hain zuzen ere, plazara joateko eskailera andana bat kendu eta ranpa bat paratu du bere orde, gauza bera egin du Elizako sarrera nagusian eta, baita, kanposantuko sarreran ere. Obra hauek Nafarroako Enplegu Zerbitzua-ren bitartez kontratariko langile batek egin ditu. Segur aski batek baino gehiagok eskertuko dituela egin berri diren lan hauek.

Bertzalde, Iharrion (lehengo komisaldegian) zenbait lan egiten ari dira.



Usategietako Igandearen arrimuan, «Gazte eta gazte sentitzen direnen afaria» egiteko aprobetxatu zuten 70 bat lagunek larunbatean Herriko Ostatuan. Ongi jan eta hobeki edan ondotik, nobedade gisa, bingo partikular batean aritu ziren bildutako guziak. Umorea eta giro ona bederen ez ziren falta izan joko honetan, ezta irabazleentzako sariak ere. Goian, bingo irabazleak eta bertze hainbat, afalondotik ateritako argazkian.

**KOXKILA OSTATUA**  
Berrito mus Koxkilan!  
Astero opari ederrekin

Zarandía, 4 - LESAKA

**Ioredenda**

Albistur, 39-K  
☎ 627542  
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

**LEGARRA**

Prentsa _____	Fax publikoa _____
Liburuak _____	Plastifikazio _____
Tabakoa _____	a _____
Opariak _____	Enkuadernazi _____
Kukuxumusu _____	o _____
kamisetak _____	lanak _____
	Iraxketa _____
	lanak _____

*Egunero bekitia*

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

**HERRIKO**  
OSTATU - JATEETEA

Albistur, 39-K • 648 63 70 30  
Tfnoa - FAX HERRIKO

## IGANTZI

# Barazarrearen lehenbiziko solairua kultur aretoa bihurtu nahi da

Laguntza eskaria egin dio Udalak Nafarroako Gobernuari

## Oskar TXOPERENA

Joan den astean akautzen zen kulturarekin zerikusirik duten aretoak moldatu eta ekipatzeko Nafarroako Gobernuak ireki zuen laguntzak eskatzeko epea. Ez du Herriko Etxeak hitzaldiak, bileak eta orohar kulturarekin zerikusia duten ekintzak aitzinera eramateko leku egokirik, eta Barazarrean, medikuaren kontsultategiaren gainean, libre eta prest gelditu den solairua horretarako moldatzea egokia iduritu zaio. Horretarako laguntza eskatu dio Nafarroako Gobernuari.

## Onddo aunitz udazkenean

Azken asteotan onddo aunitz biltzen ari da jendea. Hain uda idorra egin duenez, Nafarroako Pirinio aldean ez bezala, nahiko berandu hasi da denboraldia, baina merezi izan du pixka batean egotea. Ez omen zen izan hasiera-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

**Barazarrea etxeko azpia hartzen du gaur egun kontsultategiak. Lehenbiziko solairua ere erabiltzeko proiektua aitzinera atera nahi du Udalak, kultur ekintzerako hain zuzen.**

koa onddo izugarria, artesia edo erdi ustela arrautzen omen zen eta. Urriro osoan bildu dena, ordea, guttitan bildu izan den modukoa izan da, bai kalitatearen aldetik –freskoa eta gogorra- eta baita kopuruarenetik ere, aunitz biltzen ari baita jendea. Azgazkian Joxe Agerre berrizaundarrak bildu-



tako kilo pasatuko onddo ageri da bere semearen eskutan.

## XIX. mendeko lehen abizenak

Etxeberria...109	Danboriarena...50
Senper .....108	Migelena .....48
Irigoiñ .....78	Ordoki .....46
Yanci .....77	Iturria .....45
Leiza .....64	Zubiri .....45
Matxikote...64	Telletxea .....34
Irisarri .....61	Alzuri .....32
Bergara .....59	Arburua .....31
Apeztekoa...58	Legia .....28
Iparragirre...57	Sanpaul .....27
Txoperena...55	Lizardi .....26
Ameztoi .....51	Zozala .....25

## Herria ezagutuz

2.086 lagun jaio XIX. mendean

2086 lagun jaio ziren XIX. mendean Igantzin. Hori izan zen behinik behin bataiatutako kopurua. Pedro Marcos Thomas Celayeta Zambudio izan zen mende horretako lehen haurra, 1800eko ilbeltzaren 2an jaio baitzen, eta 1899ko abenduaren 20an jaiotako Tomasa Machicote Leiza Goietxebordakoa, berriz, azkena. Tartean, erran bezala, 2086 lagun jaio ziren; urtero, banaz bertze, ia 21 haur. Tarte horretan ez ziren urte guztiak emankortasun aldetik berdinak izan: 1811a eta 1830a izan ziren emankorrenak 32 baitaiorekin –hurbiletik 1821a, 1836a, 1838a eta 1857a 30ekin-, eta pobreenak 1869a 10ekin eta 1810a, 1844a eta 1875a 12ekin.

Ondean ageri den koardoa 2086 lagun horien lehenbiziko abizenari erreparatuz egindakoa da. Ikusten den bezala, Etxeberria eta Senper izan ziren, alde handiarekin, mende horretan abizen nagusiak. Lehenbizikoari buruz erran behar da ez zela XVIII. ean hain ugaria Igantzin, baina mende horren azken aldera Feliz Etxeberria sunbildarra Maria Miguel Ameztoi herritarrekin ezkondu eta ondorengo haundia izan zuten –41 biloba-, abizena herrian aunitz zabalduz. Senper abizenarena, berriz, alderantzizkoa da. Mende bat pasatuxean, hain ugaria izate-tik desagertzera pasatu egin da, inor ez baita gaur egun herrian lehenbiziko abizentzat Senper daukanik. Berdintsu gertatu da Yanci, Leiza, Irisarri, Bergara, Apeztekoa, Iparragirre, Ameztoi, Danboriarena, Ordoki, Iturria, Zubiri eta bertze zenbaitekin.

**ANSONEA** jatetxea

Eguneroko menua eta karta  
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

**Alberto RETEGI**  
abokatua

Alzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763

**ATM S.A.**



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxes: 948 637 313



## ARANTZA

# Datozen bi larunbatetan Udazkeneko Kultur Egunak egingen dira

Larunbat honetan zortzigarren baserriarren eguna izanen da

### Nerea ALTZURI

Azaroa estreinatze-arekin batera, udazkeneko kulturaldia abian paratuko da. Larunbat honetan, azaroaren batean eta hilaren 8an kultur ekitaldiak burutuko dira. Betiko gisan, Euskara batzordeak eta Ekaitza Elkartek antolatatu dituzte eginbeharreko ekimen guztiak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen, Herriko Etxearen eta UEMA-kultur Elejiraren laguntzarekin.

Aintzineko egunetan, Ekaitza Elkartearen izenean gonbidapen gutun bat ailegatu da etxe guzietara, Baserriarren egunean parte hartzeko. Dagoeneko pentsatzea da frontoian paratu beharreko baserriko produktu eta tresnen, abereen leku, lan artistiko eta abarren berri jakinen dutela elkartean herriko frontoia azoka bilakatzeko. Zortzigarren baserriarren egun honi goizeko hamarretan



ARTXIBOKOA

**Bertze urtetan bezalaxe, Arantzako etxe eta baserrietako azienda, barazki eta tresnak ikusgai, dastagai eta erosgai izanen dira Baserriarren Egunean.**

emanen zaio hasiera guziaz prestatu eta gero. Bertako baserriarren zein artisten produktuak erakusgai eta salgai izanen dira. Eguerdiko giroa alaitzeko Xapre eta Zarra trikitilariak frontoian ez ezik herriko karraketan ibiliko dira. Gero bazkaria Zahar Txo-

kon izanen da eta Mikel Mendizabal eta Xabier Zeberio bertsolarien bertsoak ere izanen dira otordu ondotik. Arratsaldeko bortzetan, eskolako gimnasioan Irrintzi taldearen «Bakartxoren zapatilak» izeneko txotxongilo lana gozatu ahal izanen da.

Ilunabarrean haur eta gaztetxoei zuzendutako mus txapelketa izanen da zazpietan hasita eta arratseko hamarretan, helduen txanda izanen da.

Larunbat honetan zortzi, azaroaren 8an hain xuxen ere, 17:00etan eta eskolako

gimnasioan Bertso Magia izanen da. Ondotik haurrentzat merendua prestatuko da. 19:30etan herriko plazan Txori Zuri dantza taldearen saioa izanen da.

### Sukaldaritza ikastaroa

Ekaitza Elkartearen ekimenez, sukaldaritza ikastaroa joan den asteazkenean abiatu zen Zahar Txoko-ko sukaldetan. Aste honetako asteazken, ortzegun eta ortziralean, eta heldu den asteko egun berberetan iraganen da sukaldaritza ikastaldi hau. Arratsaldeko 7etatik 9etara otordu bateko plater erraxak prestatzen erakutsiko dute Xabi eta Ainhoa Altzuri sukaldariak sei egunez. Sukaldean ohiko platerekin edo betiko platerekin trebatu nahi duenari ongi etorriko zaizkio sesio hauek. Heldu den alean, ikastaroaren xehetasun gehiago kontatuko dizkitzuegu.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Astelehenetik ortziralerara, 9:00etatik 15:00etara  
• Asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50  
amaia@artekari.com

### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 948 133328 Faxa: 948 133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA  
patxi@artekari.com

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

## PIKABEA pinturak

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkitzuegu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • BERA

## DONEZTEBE

# Ezpelura errekaiko pareten zimentazio gastua ia bikoiztu da

Bertze zenbait lan gehiago ere egin direla zehaztu du alkateak

## ttipi-ttapa

Ezkurra erreka Donetzteben isurtzen duen lekua ondoan, Ezpelura erreka eskulaldeko paretaren zimentazioa moldatzeko lana 19.510,19 euro gosta da azkenean. Hasierako aurrekontua 10.068,49 eurokoa zen. Udal idazkariak aipatu zuenez, hori %20a baino gehiago igo denez, legearen arabera kontratua aldatzeko espediente egin eta guttienez hiru eskaintza eskatu behar zituen Udalak. Ramon Etxebeste alkateak jakinarazi zuenez, lanak egiten ari zirenean bertze lan batzuk egitea komenigarria zela ikusi zen eta makinak han zeudela probetuz egin ziren. Udalak alkatearen azalpenak onartu eta ahobatez onartu zuen ingeniariak aurkeztutako azken ziurtapena.

## Arartekoaren bisita

Nafarroako Ararte-



ARTXIBOKOA

**Eskola inguratzen duen hesia ez ezik, joku zelaia ere moldatu nahi da.**

koa edo Herri Defendatzailearekin hitzarmena sinatuko du Doneztebe Udalak urriaren 30ean, 13:30etan. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin Nafarroako Arartekoekin duen elkarlan hitzarmen honen bitartez, Arartekoaren lana ezagutzera eman nahi da Nafarroa osoan. Egun horretan berean, 16:30etan herriko el-

karteekin bilduko da Arartekoa.

## Eskolako hesia eta joku zelaia

Doneztebe esko- la inguruan dagoen hesia eta joku zelaia moldatzeko lanak egitea 25.902,80 euro gosta da, udal arkitekuek egindako txostenaren arabera. Txosten hori ahobatez onartu eta lanak egiteko Nafarroako

Gobernuaren Hezkutza eta Kultura Departamenduari dirulaguntza eskatzea erabaki zuen ahobatez Udalak.

## Venezuelara laguntza

Venezuelako Aragua estatuko Maracay herrian San Pablo Apostol elizako erretore eta Monseñor Arias Blanes eskola-tailerreko zuzendaria den Juan Jo-

## FLASH

## Dirulaguntzak

Nafarroa Oinezentzako 420 euroko dirulaguntza emanen du Udalak. Euskal Kantuzaleen Elkarteari, berriz, Nafarroako Euskal Kantu txapelketaren finala Donezteben azaroaren 22an antolatzeagatik 600 euro. Josetxo Ezkurra XIII Memorialaren sariendako 811,82 euro, gastuen erdia, emanen dizkio Udalak Txaruta elkarteari.

## Elizagibelako zubia

Elizagibelako egurrezko zubian argiak jartzeko eskaria egin zuen Alfredo Zugarramurdi PNVko zinegotziak azken udal batzarrean. Modu berean, euria egiten duenean zubian irristu egiten dela erran zuen. Alkateak erantzun zionez, dagoeneko arkitekuekin solastu da ez irristeko sistemaren bat jartzeko eta zubia- ren bi aldetan argiak jartzeko. Behar bada baranda bat ere jarriko omen da.

se Zugarramurdi doneztebarraren eskaria- rekin bat eginez, 3.000 euroko dirulaguntza igorriko da Herriko Etxetik, %0,7aren aldeko kanpainaren barnean.

**ERREKALDE**

OSTATUA

PLATER KONBINAITIAK

PINTURAK

BOKATIAK

TEL: 948 430 259 FAX: 948 430 259

**APARAN, S. A.**

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

616 513 497

**Pititi**

ESKABAZIOAK

C/Amelia 1  
32010 DONEZTEBE (NAFARRUA)



## ARKUPEAK

# Lodosa, Lizarra eta Segovia bisitatzeko bidaiak prest dira

Azaroaren 6an egingen dute Nafarroako txangoa



### tti-pitapa

Arkupeak erretiratu-  
tuen elkarteak Lodosa  
eta Lizarrara bidaia egi-  
nen du azaroaren 6an.  
Autobusak tarteka ater-  
rako dira, denak batera  
ez ailegatzeko denbora  
emanez. Horrela Lodos-  
ako Conservas Peron  
lantegira bisitaldia tal-  
deka antolatuko da, ba-  
tzuk piper landak ikus-  
ten dituzten bitartean  
bertzeek fabrikak, txan-  
pinoiak egiten diren le-  
kuak edo gero zuritze-  
ko ikatzarekin piperrak  
erretzen dituzten lekuak  
ikusiko dituzte. Nahi  
duenak pikillo piper fa-  
matuak, txanpinoiak,  
zainzuriak eta barazki  
ezberdinak prezio one-  
an erosteko aukera izan-  
nen du.

Lodosako lantegitik  
Lizarrara joko dute, Ven-  
ta Larrionjatetxera. Han,  
14:30etan bazkalduko  
dute honako menu hon-  
ekin: Ganba eta ba-  
razkitxo-budina, ota-  
rrainxkak plantxan, ba-  
razki menestra, ahate  
urineztatua, cava kopa,  
tarta izozkiarekin, ura,  
ardoak, kafea eta liko-  
re normalak.

Bertze aldetik, aza-  
roaren 24tik 28ra Seg-  
oviako Venta Magullo-  
ra bartz eguneko ater-  
aldia antolatu du Arku-  
peak elkarteak. Azaro-  
aren 24an goizez ater-  
rako dira eta Sorian baz-  
kaldu ondotik, arratsal-  
dean ailegatzeko dira  
Venta Magullora, bertan  
afaldu eta lo egiteko. Hi-  
ru egunez inguruko to-  
ki ikusgarri eta histori-  
koak bisitatuko dituzte.

U E Z K I E T N E S E Z I L I S T K

U L KUTX K  
IN E TSI -  
F N K



r n, zur f n k ut  
mu m n u sk t sun .



Z r n l z n r , r n u z u z u r l n r s -  
F n u r l k u x r s t z k s e s u n  
z r r r n u .  
E t n e z u r n r s r r n t r r t s u n k  
h n n t r t z k k u u r u t u  
u r z l t e r f s n l t l e s k l u  
r e s n l m t .

n k z s  
t z k z u z u r f n k  
u r l k u t x r s t u -  
f s k l k .

www.rur.lv.es.m

G r r n i z t s u  
z u z r

NAFARR AK  
RUR L KUTXA

## BERTIZARANA

# Erriberara bidaia antolatu du Bertizko Natur Parkeak

Azaroaren 23an Pitillas, Erriberri eta arandegi bat bisitatuko dira

## ttipi-ttapa

Duela aste batzuk Urbasara egin zuen bezalaxe, azaroaren 23an Nafarroako Erribera bisitatzeko ateraldia antolatu dute Bertizko Jaurerriko Natur Parketik. Egun horretan, Bertizetik Pitillasko Aintzirako Behatokira, Erriberriko Gaztelura eta herri horretako arandegi batera bisita egingen dute. Autobusa Elizondotik abiatuko 8:45etan eta 9:00etan Doneztebetik pasatuko da jendea jasotzeko. 10:15etan Pitillasera iritsiko dira eta aintzirako behatokian hegaztien pasa ikusiko dute txangolariak. Eguerdian Erriberriko gaztelua bisitatuko du-

te. 13:30etan San Martin de Unxen bazkalduko dute, jatetxe batean 12 eta 18 euro arteko prezioan edo norberak eramandako bokatak. 16:00etan Karrikas arandegia bisitatuko dute, ardo nafarra nola egiten duten ikusteko. 18:00etan abiatuko da autobusa berriz ere, Doneztebe eta Elizondora bueltan 19:30etan egoteko. Bisita guzien eta autobusaren prezioa 9 eurokoa izanen da, helduak eta haurrak berdin. Izen ematea azaroaren 15a baino lehen egin behar da Bertizko Natur Parkearen 948 592421 telefonora deituz. Ordainketa banku bitartez egingen da.



ARGAZKIA: D.NAVARRA

Patxi Iriarte Agirre 38 urteko narbartearra eta Maitane bere alaba agerdi dira argazkian, urriaren 10ean herriko iratzelai batean harrapatu zuten 1,820 kiloko onddoarekin. Patxiren erranetan, «onddo bila aritzeko afizioa badut, baina inoiz ez nuen halakorik ikusi». Lagunekin jan zuen onddoa.

## ADINEKOAK

### Xahartasunari buruzko jardunaldiak

Bizi biziki bizia izenburupean, xahartasunari buruzko jardunaldiak egin dituzte joan den astean Elizondon, Bidelagun laguntza email taldeak eta Elizondoko Osasun Etxeak antolatuta. Oroitzape-

naren paisaiak argazki erakusketa ikusgai izan zen. Oroitzapenen iturritik solasaldia eskaini zuen Vicente Madozek. Txaro Olletak eta Amaia Meokik, bizitzari kalitatea ematen solasaldia eskaini zuten eta Akira

Kurosawa zuzendariaren Vivir filmea eskaini zen zineforumean. Mahaingurua ere egin zen Esperientziaren bitartez geroari begira izenburupean. Maritxu Oteizak, Jose Antonio Gonzalezek eta Santiago Landak parte hartu zuten mahainguruan.

**KAPRITXO**  
Arropa  
eta opari  
denda  
© 649 450249 • LEITZA

**BEINTZAKO**  
**OSTATUA**  
© 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN

**IRU BIDE**  
ENITERRA  
Tfnoa: 948 637 127  
**LESKA**

## BERRIKUNTZA

- Multimedia bidezko teorika
- Entzute bidezko teorika (CD, kasetta)
- Teorika klase partikularrak
- Atzerriarrei egokitutako teorika klaseak (nazionalitatearen arabera)

948 630 800  
**AIZAGA**  
948 630 800 • Legia 42 • BERA

Gustuko zerbait aurkitzen dugunean zurekin konpartitu nahi dugu



## MALERREKA

### Aurtizko San Martinak azaroaren 7tik 11ra

Igande gauean disko festa eginen da Aurtizko Ostatuan

**Ortzirala 7**  
**Besta Bezpera**  
**20:00etan** altxaferua herriko txistulari eta trikitilariekin. **21:00etan** Zopa Jatea Aurtizko Ostatuan. **00:00etatik 01:00etara** Diego Quevedo Mariatxia. **Ondotik** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

**Larunbata 8**  
**10:00etan** argisoinua herriko txistulari eta trikitilariekin. **12:00etan** herriko gaztetxoek herri kirolak. **17:30etan** Trikitixa jaialdia. **01:00etatik aintzin** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

**Igandea 9**  
**10:00etan** argisoinua herriko txistulari eta trikitilariekin. **12:30etan** Aizkora Apostua: Na-

zabal eta Olasagasti. **18:00etatik aintzin** dantzaldia JOXE ANGEL akordeolariarekin. **Gauetz** Disko Festa Aurtizko Ostatuan.

**Astelehena 10**  
**Haurren Eguna**  
**10:00etan** argisoinua herriko txistulari eta trikitilariekin. **10:00etan** Plater Tiraketa. **11:30etan** Haurren Jokuak. **18:00etatik aintzin** dantzaldia JOXE ANGEL akordeolariarekin.

**Asteartea 11**  
**San Martin Eguna**  
**10:00etan** argisoinua herriko txistulari eta trikitilariekin. **10:00etan** Mus Txapelketa. **12:00etan** Meza Nagusia. **14:00etan** Herri Bazkaria. Bertsolariak:



1999an, gazte eta helduen arteko herri kirol desafioa jokatu zuten Aurtizen. Beheko argazkian, gazteak dantzan duela urte batzuetako bestetan.

ARGAZKIA: MALIXEK UTZIA

PEÑAGARIKANO eta IRAZU. Akordeolaria:

JOXE ANGEL Beste amaiera emate-

ko GAIXOANI Joxe Angel akordeolariarekin.



**TOLDOAK** SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA  
**ALFONBRAK** SALMENTA  
**PERTSIANAK** MOTORIZATUAK, MOSKITERAK, VENECIANAK, etabar...



**HERRI OSTATU  
GAZTELU**

Gaztelu-Donamaria  
Tel. 948 450105  
647 043501

- Kinto bestak, ospakizunak, urtebetetzeak...
- Logelak-Gosariak
- Taberna-Terraza
- Parrilla: Haragia, arraina eta barazkiak
- Plater begetarianoak
- Konbinatuak
- Kaxulak...

## ARESO

# Emoziozko adimena landu dute eskolako irakasleek

Herriko euskalkia bildu eta antzezlan bat ere egin nahi da

## Juana Mari SAIZAR

Irakasleek ikasturteko proiektua aurkeztu dute eta gaiak eraustez gain, emoziozko adimena edo inteligentzia emozionala landuko dute, emozioak eta empatia ezagutuaraziz. Gurasoek parte hartu nahi badute plangintza honetan zabalagoa izango da.

Euskarazko proiektu bat ere egiteko asmoa dago Aresoko hizkeraren kontuak bildu eta interesgarrienekin antzerkitxo bat egin nahi da. Ongi ateratzen baldin bada, hurbileko herrietara eraman nahi da.

## Eguberrietako jaiotza

Guraso Elkarteak dituen



ARTXIBOKOA

Eguberriak prestatzen hasiak dira eskolan. Jaiotzaren irudiak egiteko plantillak eginen dituzte gurasoek, gero haurrek margotzeko.

proiektuen tartean Eguberrietako jaiotzaren irudiak egitea dago. Lehenik plantillak egingo dituzte eta gero eskolako umeez margotuko dute. Ingelerako klaseak ere martxan jarri nahi dira.

## Etxe izenak euskaraz

Aurreko alean aipatu

zen bezala, Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak etxe izenekin errotuluak jartzeko kanpaina bultzatuko du. Etxez etxe informazioa banatuko da eta etxe izenak euskaraz jartzeagatik dirulaguntza emanen da. Errotuloa kostatzen denaren erdia bitarte ordainduko da, gehienez 120 euro.

## Eskolaren barrenaldea margotu dute

Leitzaldeko Mankomunitateko Babesturiko Giza Lanaren partaideak Aresoko eskola margotu zuten barrenetik, guraso batzuen laguntzarekin. Hauek altxariak kendu, bildu eta berriro bere tokian jarri zituzten.

# LABUNBATA, AZAROAK

# 1



## BORDATXO baino lehen, hartzazu tragoxka bat

Restaurante  
BELARRA

Bar  
IRRINTZI



Bar  
EL CAFE

Bar  
AMEZTIA  
Asador

BIXEN  
OSTATUA



## GOIZUETA

# Kultur taldeak ekitaldiz bete du aurtengo azaroa

Bestalde, Euskal Herriko lekurik euritsuena Goizueta omen da

### Esteban AROTZENA

Lehengo urtean jendeak emandako erantzun ederrak animaturik, aurtun ere kultur taldearen eskutik ekitaldiak izanen dira herrian azaroko asteburu guzietan. Antzerkiak, diapositibak, tailerrak, magia eta zokor erre jate herrikoiak egonen dira beraz, herritarrentzat ikusgai eta dastagai hurrengo hilean. Egutegiak horrela agintzen duelako, azaroaren 8koaren berri zehatza emanen

dugu hemen, «Txina, dragoia ernatzen delarik» izenburupean Jon Abril eta Asier Gogortza beratarrek emanen duten diapositiba emaldia, alegia. Ganbara aretoan 20:00etan da horretarako hitzordua.

### Gaixo edo adinekoak zaintzen dutenentzat ikastaroa

Gaixo edo adineko pertsonaren bat zaintzen dutenei zuzendu-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

### Lekurik euritsuena, Goizueta

Argitaratu berria den klimari buruzko ikerketa batek dioenez, Euskal Herriko lekurik euritsuena Goizueta da, horrelaxe diote behintzat metereologia behatoki ezberdinek emandako neurketek. Gure herrikoak (Artikutza auzoan kokatua) metro koadroko eta urteko 2.600 litro euri jaso ditu batz besta 1931 urteaz geroztik. Argazkian, goizuetarrak ageri dira Artikutzan San Agustín egunean.

tako sei orduko ikastaroa antolatu du Zonaldeko Prebentzio Programak azaroaren 10, 17 eta 24rako. 15:00eta-

tik 17:00etara eskolako jangelan eginen den ikastaroan iaz ikusitakoa sakonduko da, beste hainbat gai berri uki-

tzeaz gain. Zaintzaileak bere burua zaintzen ikastea omen da prebentzio programa honen helburua.

board atxo

IZUGARRIZHO DJ - SAIORA  
ETA BESTAREN BUHAERAN

aparrarekin  
dantzaz!!!

## LEITZA

# Etxe izenak euskaraz jartzeko dirulaguntza emanen da

Leitzaldeko Euskara Zerbitzuaren eskutik

Mikel ILLARREGI

Zonaldeko Euskara Zerbitzuak etxeen izena errotuluetan jartzeko dirulaguntza emateko diru kopurua onartu zuen aurtengo aurrekontuetan. Etxe hauen berreskuratzea, erabilerara bultzatzea eta indartzea eta izenak gordetzen laguntzea dira jarritako helburuak.

Laguntza honen bidez, gastuaren erdia ordainduko zaio herritarri, beti ere 120 euroko mugarekin. Euskarazko izena jarriz gero, etxe berrikoek ere laguntza jaso ahal izanen dute.

## Eskolaz kanpokoak

Urtero bezala, Erletan eskolan eskolaz kanpoko ekimenak antolatu dira. Aurten esan beharra dago ez direla asko izena eman dutenen kopurua; 43 izen guztira, kontutan hartuz bat baino gehiago badela bitan izena eman duena. Igeriketa ikastaroan 17 ikasle (hiru talde), Pilota eskolan 18 (bi talde), Buztingintzan 4 eta Eho-zirigintzan beste lau.

## Herrilurraren balio berritzea

Ediktu baten bidez udalak agertu du hamabosteguneko epean (eme! urriaren 31n amaitzen baita epea) alegazioak aurkeztu daitezkeela hirilurraren balio



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Asko dira Pilota eskolatik igaro direnak. Argazkian Aldaiarekin batera (erdian) Igor Aldaia, Aitor Bengoetxea, Abel Barriola eta Unai Olano.

berrituaren proposamenaren aurrean. Beste modura esanda, "kastororako" ezartzen diren ondasunen balioak tarteka (azkenekoa, orain dela hamar urte) berrikusten dira eta hauek jendeaurrean egoten dira nahi duenak alegazioak edota oharra azaltzeko.

## Ehiza barrutiaren probetxamendua

UPN taldeko zinegotzien kontrako botoekin, Udaltzakoak, 2003-2013 urte bitartean, ehiza barrutiaren probetxamendua Leitzako Ehiztarien Elkarteari zuzenean esleitzea erabaki zuen. Lehenengo urtean 13.500 euroko

prezioa izanen du (BEZ barne) eta hurrengo urteetan IPCari dagokion igoera gehituko zaio. Silvestre Zubiturrek, «gauza asko diruz laguntzen dira», «familia guztietan bada ehiztariaren bat», «ehiza ere kirola da eta beste dirulaguntzarik ez zaio ematen», «diskriminazioa da» eta horrelakoak aipatuz igoerarik ez onartzea planteatzen zuen. Dena den, «ehiztariak igoera hau eta handiagoa ere onartzen dutelako», lehen aipatutako erabakia onartu zen.

## Inguruartean Repsol eta zaldiak

Inguruarte (kakazelai) erabilerarako eska-

era ezberdinak daudenez, udalak bost puntutako erabakia hartu zuen. Lehendabizikoa, 2003ko apirilean 25ean Repsol enpresari lur publikoa okupatzeko ematen zion baimena bertan behera uztea. Biltokia handitzeko, hau gauzatzeko proiektua eskatzea eta "kontraprestazio" gehiago eskatzea izan ziren bigarren, hirugarren eta laugarren puntuak. Azkenekoan, herrian diren "zaldun"ek eginiko eskaerari erantzunez, zaldientzako itxitua egiteko, 18 metroko diametroa duen lur publikoa okupatzeko baimena eman zen. Hau urte baterako balio izanen du, nahiz eta luzagarria izan daitekeen.


## FLASH

## Nortasun Agiri gehiagorik ez

Dakizunez, aspaldi honetan NAN edo DNI -a egiteko 100 pertsonen eskaera ziurtatu behar zen eta ondoren papearak egitera etortzen ziren Iruñeatik. Horrela egiten zen orain arte, eta orain 120 eskaera zeudenean, gehiagotan ez zirela etorriko adierazi zuten udaletxean. Hemendik aurrera Iruñean edo Donostian egin behar dira.

## Aurrera Preferenten

Joan den denboraldia jeitsiera postuan bukatu bazuen ere, berriz Preferenten ari da Aurrera futbol taldea. Ez du denboraldi hasiera txukuna egin eta 7 partidutik bakarria irabazi du. Azkenurreko postuan dago momentuz.



**PAGOLA**  
TXISTORRAREN  
IZENA

© 948 630 054  
Altzateko Plaza, 2  
BERA



## ZUGARRAMURDI

# Ibilgailuen abiadura murrizteko neurriak hartu ditu Udalak herri sarreratan

Errepidearen alde alde doazen saltoak jarri dituzte

### Margari eta Koro

Gaur egun herri aunitzetan sortu den arriku berria kotxeak ibiltzen duten abiadura haundia da, eta Zugarramurdi ere hala gertatzen da, batez ere herriko bi sarreretan. Hoietakoa batetan, Dantxari neatik sartzen den aldean 50 kilometro orduko abiaduratik beheiti ibiltzera obligatzen da, baina jende guttik kasu egiten dio seinale horri. Maiatzean sartu zen udal berriak bere lehenbiziko lanetatik bat hau hartu zuen, eta bere fruituak eman ditu: Denetara errepidearen zabaltasun osoa hartzen duen lau "saltotxo" jarri dituzte. Horietako bat Azketa aldeko sarreran



ARGAZKIA: MARGARI

Lantoki berria jarri dakute herrian, Sartzarrea ondoan. Ebarixto Mentaberri eta Toño Marturetek harriak lantzen dituen ARKAZELAI enpresa sortu dute. Edozein harri klase erabiltzen dute (gorria, urdina, marmola...) eta toki desberdinetatik ekarri ere, Euskal herriatik aparte baita Burgos, Santander eta Zaragozatik. Egiten duten lana ere gisa guztietakoa da: harri xabalak, kantoin harriak, harri landuak...

eta bertze hiruak Lapiztegia karrikan.

Horrez gain, Martineko bidegurutzean ispilua jarri dute, kotxeak hortik ateratzerakoan ikusmen gehiago izan dezaten.

### Saneamendu lanak

Saneamenduko lan batzuk egiteko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak. Saneamenduko sare guztia ez da oraindik Beheiti-ko karrikan dagoen depuradoraraino ailegatzeko, eta zati hoietakoa bat harat bideratzeko 251.111,36 euroko lanak egingen dire. Kopuru horretatik 217.331,31 euro Gobernuak jarriko du.



## VRDAZYBIKO MYSTXAPELKETA AZKARRA

### Izen-ematea:

16 euro bikote bakoitzeko  
**Lekua:** Bar Mon (Auzan-borda)  
**Tel.:** 948 599039  
**Ordua:** 21:30etan

### Azaroak 15, larunbata

- 1. saria: 180 € bakoitzarentzat
- 2. saria: 90 € bakoitzarentzat
- 3. saria: Urdaiazpiko bana
- 4. saria: Bildots bana

### Azaroak 22, larunbata

- 1. saria: 180 € bakoitzarentzat
- 2. saria: 90 € bakoitzarentzat
- 3. saria: 80 litro gasoil-gasolina
- 4. saria: Ahate-konfit lata bana

### Azaroak 29, larunbata

- 1. saria: 180 € bakoitzarentzat
- 2. saria: 90 € bakoitzarentzat
- 3. saria: Urdaiazpiko bana
- 4. saria: Bildots bana

**BAZTAN**

# Elizondoko Jorge Oteiza Museoa Nafarroako Sarean sartuko da

Santxotenaren museoak defizita sortuko duela dio Cederna-Garalurek

**ttipi-ttapa**

Elizondoko Jorge Oteiza Museo Etnografikoa Nafarroako Museo Sarean sartuko da, Juan Ramon Corpas Nafarroako Gobernuo Kultura eta Turismo kontseilariak urriaren 16an Baztanera egindako bisitaldian jakinarazitakoaren arabera. Departamendu honetatik 176.320 euroko dirulaguntza eman zen Puriosenea moldatzeko eta gero 42.477 euroko berzte subentzioa eman zen. Gaur egun, inbentarioa informatizatzen ari dira museoan.

Corpas kontseilariak Amaiurko errota zaharra eta Santiago Bidearen barnean dagoen Arizkungo zubia ere bisitatu zituen.

**SANTXOTENA MUSEOAK URTERO 66.111 EUROKO DEFIZITA**

Bertze aldetik, Balleko Udalaren eskariz Cederna-Garalurek erakundeak egindako ikerketaren arabera, Ariz-



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan ikastolako guraso, ikasle eta irakasleek beren ibilaldiei hasiera eman zioten irailaren 20an, Bizkaiako Karrantzara egindako bidaiarekin. Erdi Arokoa den Loizaga dorrea bisitatu zuten, bertan munduko Rolls Royce auto bildumarik osatuena eta garrantzitsuena ikusiz. Gero, El Carpin parke ekologikora joan ziren. Han 50 animalia espezie desberdin daude eta berriki ireki den Terrasauro. Azken honetan, haurrek gehien bat, tamainu errealeko dinosauroekin gozatzeko aukera ez zuten alferrik galdu.

kungo aire libreko Santxotena Museoak eta Gorrieneak 66.111 euroko defizita sortuko du urtero, lehengo 11 milioi pezeta baino gehiago. Ikerketaren arabera, Santxotena eta Gorrienea Balleko Etxea-

rendako errentagarriak izateko urtero 35.184 bisita izan beharko litzukete.

Xabier Santxotena eta Balleko Udala negoziatzen ari dira instalazioen kudeaketarako, baina oraindik ez da

adostasunik. Virginia Aleman alkatesak aukera ezberdinak aztertzen ari direla jakinarazi du eta oposiziotik, UPNtik, Santxotena museo bere gain har dezala eskatu nahi diote Nafarroako Gobernuari.

**FLASH**

**Lekarozko zubia**  
N-121-B errepidetik Lekaroz aldera sartzeko zubia zabaltea edo berri bat eraikitzea eskatu dio Balleko Udalak Nafarroako Gobernuari. Lekaroz herrira ez ezik, Institutura eta Gazteen Aterpera sarbidea ematen du zubi honek eta zenbait ordutan, eskolara sartzeko edo eskolatik ateratzeko orduetan batez ere, auto pilaketa ikaragarriak egiten dira.

**Hiru behi eta zezena tiroz hilak Amaiurren**

Amaiurko Xanpart baserriko Antonio eta Patxi Etxeberria aita-semeen hiru behi eta zezena tiroz hilak agertu ziren urriaren 13an, Orabideako Atxuela inguruan. Azienda bakoitzak 1.200 euroko balioa zuen.

**Gartzaingo argiteria**

Aizoaingo Electricidad Navesa, S.A. enpresak egingen du Gartzaingo argiteria berritzeko lanak 15.082,94 euroren truke.

**Igerileku estalia**

Elizondoko igerileku estaliaren obra oztopatzen duen Iberdrolaren tentsio erdiko poste bat kentzea 11.580,28 euro gostatuko da.

**onegin**  
Herbodieterikoa Ekodenda

- ZERBITZUAK:
- DIETISTA
- NATURISTA
- PRODUKTU EKOLOGIKO
- PRODUKTU NATURALAK
- PRODUKTU ARTISAUAK

Julene Urrutia, 26, Ibañeta • ELIZONDO  
748 541 872

**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostalua  
Hotela - Trinketea

**Menu Bereziak**

Braulio Iriarte  
ELIZONDO  
© 948 581807 • 948 581853

**DAGUIRE**  
arkitektura

**OBRA PROIEKTUAK**

Etxe berriak eraikitzeko  
Birmoldaketak  
Aktibitateak  
Hirigintza

649 95 94 14  
NAFARROAN ETA GIPUZKOAN

**SOULE**

**Hileta artea**

© 948 453444 • 629 659583  
**ARIZKUN**

**MENDI**

**OSTATUA**

Santiago 25 - © 948 580313  
**ELIZONDO**



**BAZTAN**

## Euskararen aldeko ekimenak diruz laguntzearen kontra agertu da UPN

Talde honek azken aldian erabaki ulertezinak hartu dituela uste du EAk

**ttipi-ttapa**

Bertze urteetan bezala, hizkuntz normalizaziorako plangintzaren barnean, euskara bultzatzeko ekimenei dirulaguntza banatuko du Balleko Udalak. Kirol, Aisialdia, Gaztedia eta Euskara zinegotziak egindako proposamenaren arabera, 4.000 euroko dirulaguntza jasoko du Baztango Suin ki euskaltegiak, 5.300 eurokoa Xorroxin Irratiak, 5.300 eurokoa Xaloe Telebistak, 4.100 eurokoa ttipi-ttapa aldizkariak, 1.200 eurokoa Etxetik Plazara aldizkariak, 300 euro emanen zaizkio Nafarroa Oinez eta bertze horrenbertze Herri Urrats-eri eta 750 euro jasoko ditu Oinarririk Nafarroako Euskara Taldeak. Proposamen honen alde bozkatu zuten Gobernu Baztordean zeuden EAko hiru ordezkariak eta kontra UPNko biek, beraz aitzinera ateratu dira dirulaguntzak.

Portaera honengatik



ARGAZKIA: AITOR

Urriaren 14an Arizkunenea Kultur Etxean egindako prentsurrekoan eza-gutuzera emanenez, bularreko minbizia duten Nafarroako emakumeak biltzen dituen Saray elkarteak egoitza berria zabaldu du Elizondon. Ana Muñiz, Nafarroako Saray elkartearen lehendakari ordea, Amaia Arozarena, Saray elkartearen Elizondon izan den egoitzako sikologa, Virginia Aleman Baztango alkatesa, Jose Javier Bazterrika, Gizarte Ongizate zinegotzia eta Maria Isabel Bidart kultur zinegotzia izan ziren prentsurrekoan. Zerbitzu berri honekin kontent ageri zen Virginia Aleman Baztango alkatesa, baina arrenkura azaldu du Nafarroako Gobernuak COFES zerbitzuak kentzeko asmoa duelakoz. Bertako langileei elkartasuna helarazteaz gain, zerbitzua familia orientatibide eta sexu heziketarako behar beharrezkoa dela azpimarratu zuen.

eta bertze zenbait gertakirerengatik bere arrenkura agertu du EA-

ko udal taldeak. Errate baterako, EAren ustez Nafarroako Gobernu

Kultura eta Turismo kontseilariak Baztanera egindako bisitaren «era-

*bilera partidista»* egin du UPNk, «*hauteskunde kanpainaren itxura gehiago izan du bisita ofizial batena baino*». Virginia Aleman alkatesak eta Goñi eta Iturralde EAko zinegotzieren ustez «*txapuz handia*» izan zen bisita: «*Nola da posible Nafarroako Gobernuko ordezkari bat ofizialki etortzea herri batera eta bisita hori Herriko Etxeari gortetzea?*». Honela, kontseilariak kanpotik bakarrik bisitatu zuen Amairuko errota, giltzak Balleko Etxean baitzeuden eta inork ez zuelako abisua eman. «*Baztango UPNk lotsagarri utzi du kontseilari bera*» EAren ustez.

EAko udal ordezkariak gogoratu dutenez, 13 zinegotzietatik 8rekin aski dute bakarka gobernatzeko, baina «*konfidantza eman eta elkarlana gauzatu nahi izan dugu. UPNk, ordea, azken aldi honetan erabaki ulertezinak hartu ditu*».

**Carlos Garaikoetxea Etxenike**  
**abokatu**  
**Aseguru orokorrak**  
 © 948581468 • 948580433  
 Frantziarako etorb. 12 •  
 Ameztialde 3B • **ELBETE**

**asnap me**  
 • GIZARTE ETA LAN ARLOA  
 • KONTABLE-FISKALA  
 • JURIDIKO-MERKANTILA

• LANGILE AUTONOMOAK  
 - Garraiok  
 - Elektrizitatea  
 - Eraikuntza  
 - Igeltzerok...

• NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK  
 • ENPRESA GUZTIAK

- Nominak eta Aseguro Sozialak  
 - Kontabilitateak  
 - IVA eta IRPF  
 - Garraioan asistentzia  
 - Diru-laguntza ezberdinak  
 - Sozietateen inpostuak  
 - Erranta aitortpenak

**DONOSTIA**  
 Bona Semerua, 4. Solairua  
 Telefono: 948 431322 Telefax: 948 431418  
 web: teleber@asnapme.com

**ELIZONDO**  
 Santiago, 51. Solairua  
 Telefono: 948 580 504  
 elizondo@asnapme.com

**HELIKA**  
 Zuzen, 1. Solairua  
 Telefono: 948 262238 Telefax: 948 262244  
 helika@asnapme.com

**MENDIALDE Jatetxea**  
  
 AMAIUR • © 948453060

**JATETXEA**  
 © 948 580101  
 Santiago 1  
 ELIZONDO

SARA

# Panpi Etxeberria izanen da Zazpiak Bat dantza taldeko lehendakari berria

Lehendakari ordezkoa Maritxu Andiazabalek hartu zuen

## Saski eta Xan

Zazpiak Bat dantza taldeak biltzar nagusia egin zuen buruilarren azken larunbatean. Aldaketa frango egin ziren, bereziki bulegoaren osaketan. Hala nola Odile Ayezek lehendakari-zako lekua utzi zion Panpi Etxeberriari.

Lehendakari ordezkoa Maritxu Andiazabalek hartu zuen. Diru zaintzan eta idazkari-tzan ez da aldaketarik izan, hor segitzen bait dute Dominique Roudier eta Sophie Garbizok. Aurtengo hitzordu nagusiak, usaian bezala, Dantzari Ttiki Eguna eta Dantzari Eguna izanen dira. Ikastaroei dagokienez, baliteke irakasle berri bat izatea aurten. Bilkura horren ondotik denen artean



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Dantzari Ttiki eta Dantzari Egunak antolatuko ditu aurten ere Zazpiak Batek.

trago batzuk hartu zituzten.

## Garaipena errugbian

Duela egun batzuk berriz jokatu behar izan

zuten matxan saratarrek sasoineko lehen puntuak irabazi zituzten Hossegorreko taldea menean hartuz Animaineko zelaian 31 eta 24. Aurtengo sasoin hasta-

penetik joko ona erakutsi zuten bainan ez zuten oraindik punturik irabazi. Zoritxarrez ondoko matxan berriz ere galdu egin zuten Puyooren kontra 14 eta 18.

## Herriko Etxeko edantegia hetsia

Herriko Etxeko Edantegiak, udazken guziz bezala, azaroaren 10etik abenduaren hastapena arte hetsia izanen da. Hetsiera horren aintzin kontzertu bat antolatuko dute azaroaren 8an, larunbatekin, bi taldeekin. Bata herrikoa, BKBO eta bertzea Izate, Donibane Lohitzune-ko gazte batzuk osatutako taldea. Ostatu hetsia izanen den denboran aldizkariak Lastiritegian hartu behar dira.

## Liburuaren aurkezpena

Urriaren 25ean, Xabier Elosegik idatzitako «Sarako etxeak lau mendeetan» liburuaren aurkezpena egin zen Herriko Etxean.

### JOSE I. GONZALEZ ENGUIA PINTURA LANAK OROKORREAN

666 235 466  
948 630 683

Bidasoa 49 - 1.ezk • 31780 BERA

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINEKA LESAKA  
IMANOLA, TELLETTXEA ZUZAYA  
**Gasoila etxera eramaten dugu**  
Tel. 948 63 74 60      31770 Lesaka (Nafarroa)

**HERRIKO ETXEO EDANTEGIA**  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
MAIXAN ETA VÉRONIQUE  
SARA • TEL 0559542519

**Landibar** ZENTRO KOMERTZIALA  
URDAZUBIN

300 m<sup>2</sup> perfume markarik ezagunenskin  
Usain-onak, kosmetikoak...  
Euskal Herriko preziorik hoberenak

© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**

**ZOANSA**

SEAT ALFA ROMEO VOLVO  
SALMENTA  
MARKA GUZIEN KONPONKETA  
Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05  
Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA  
(Sarrera Beratik)



## SENPERE

# José Bové prest da Baionan manifestatzeko

Mundualizazioaren kontrako borrokaren burua da

**Franc DOLOSOR**

José Bové globalizazioaren kontrako borrokaren liderrak bere elkartasuna erakutsi diote gai transgenikoen kontrako erabaki batzuegatik auzitan diren herriko etxeeri, Senpere barne. Ardi esne egile ospetsuena Baionan eta Urepelen egon zen gan den asteburuan, Euskal Herriko kazetaren bigarren urtebetzean eta ELB laborantza sindikataren urteko bestan. Duela hilabete batzuk gai transgenikoen kontrako deliberoak hartu zituzten hautetsiak zoriondu zituen. Hautetsi horiek auzitan eman zituen Paueko prefeturak ustez podere gehiegieria egin baitzuten. Paueko auzitegi administratiiboak bertzerik dio eta arrazoina eman diote salatuak izan ziren herriko etxeeri. Bertzalde, euskal laborantza ganbara paralela bat sortzearen aldekoa da José Bové. Bere ustez, egitura hori legitimoa li-

take euskal hautetsi eta laborari gehienak alde direlaketz. Batera plataformak egiten duen bezala, José Bové-k ez du bazterzen Baionan manifestaldi bat antolatzeari bere traktorarekin Euskal Laborarien Batasunak hori galdetzen baldin badio.

### Bateraren aldeko manifestazioa

Urriaren 11n, mundu bat bildu zen Baionan Bateraren alde, eskual departamendua, laborantza ganbara, unibertsitatea eta euskararen ofizialtasuna galdetzeko. Antolatzaileen ustez 9.000 lagun elkartu ziren, 4.000 poliziaren arabera. Senpertar ainitzen ondoan, ehunka hautetsi bildu ziren, hauen artean eskualdeko auzapez eta herriko kontseilari gehienak. Uztaritzeko kantonomenduko kontseilari nagusia Bernard Auroy eta Lapurdiko deputatua Daniel Poulou aldiz



Christine Bessonart Anderere auzapezak hitza hartu zuen urriaren 11n Baionan Baterak deitutako manifestaldiaren bukaeran.

ez ziren manifestaldian egon. Duela lau urte alta gisa huntako lehen bestan egon ziren.

Besta giroan ospatu zen manifestaldian Catalunya eta Bretañako zombait herritarrek parte hartu zuten, bai eta zen Hegoaldeko sin-



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

José Bové, mundualizazioaren kontrako borrokalaria.



Belokeko Aita Xabier, edo Iratzeder goitzenarekin ezaguna den olerkaria omendu zuen gan den asteburuan Euskal Kultur Erakundeak. Sentsibilitate haundiko elizgizonak argiki erran zuen ainitz zor ziola Senpereri. Herriak osasuna eta euskaltasuna eman ziozkan gazte zelarrik udak Uhartetxeberrian pasatzen baitzituen, pausatze eta bere kusinekin eskuara ikasteko. Bere omenaldirat, senpertar ainitz hurbildu zen, guk ere doike zerbeit zor baitiogu Iratzeder olerkariari.

dikata eta alderdi abertzale guzietako ordezkariak.

Hemendik goiti, Baterak ez du bazterzen desobediencia zibila za-

baltzea egoitza publikoak okupatuz konpazione. 550 lagun prest dira janeko ekintza battersu eta sinboliko herrietan parte hartzeko.



## ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA



# OKANE

## HARATEGIA URDAITEGIA

Kanttonberri 4  
Tfnoa: 948630018  
BERA

## AZKAIN

# Tonyri omenaldia egin zitzaion Larrunen urriaren 12an

Kulki elkarte berriak kudeatuko du kirol ostatua

## Angela eta Xamo

Urriaren 12-an igandearekin, jende multzo bat Larrunen elkartuzen, Tony Albistur-en omenez. Duela urte bat, 20 urte zituela, auto istripu batean zendu zen. Gaztain ondo bat landatua izan zen bere orroitgarri, lhizelaiako gainekaldean.

Urtemuga honenkari, harri bat zizeldua izan da azkaindar gazte batengandik, zuhaitzaren ondoan pausatzeko.

Batzu goizean goiz abiatu, beste batzu meza ondok, Beratik edo Azkaindik, orotara 80 bat lagun, gazte eta heldu, hurbildu ziren Toniren harriaren inguruan. Elkartasunean denek elgarrekin bazkaldu zuten egun goxo bat pasatuz.

## Saski baloia

Azkaingo saski baloia elkarteak sasoi-n hasi du urriarekin.

Aurten, zortzi talde desberdinek (orotara

100 jokalar) herriko koloreak ikusaraziko dituzte departamenduko leku guzietan.

Gan den urtean igo zirelako, mail berri ta azkarrago bat atsemanen dute gizonek. Segitu beharko dute bide honetara, diaz egin zutena konfirmatuz.

Neskek, bigarren urtea pasatuko dute mail honetan. Oroitarazi behar da bi aldiz segidan igo zirela.

Gazteak ere ariko di-



ARGAZKIA: XAMO

Urtemuga honenkari, harri bat zizeldua izan da azkaindar gazte batengandik, zuhaitzaren ondoan pausatzeko.

ra xapelketa desberdinetan. Mutikoak hiru taldeetan zatituko dira, kadet, minim eta benjamin mailetan, bai ta neskek ere, kadet, benjamin eta xito mailetan.

## Kulki elkarteak sortu da

Elkarte berri bat sortu da herrian: KULKI (Kultur eta Kirol) elkarteak Kirol ostatuaren kudeatzea bere gain hartuko du, Herriko Etxearekin eskuz esku. Aipatu ginuen bezala azken zenbakietan, herriko elkarte guzietan parte hartzen ahalko dute Kulkian.

Elkarte berriaren estatutuak eztabaidatuak izan arren, bulegoa bozkatzea gelditzen da oraino. Azken xehetasun hori egina izanen da las-ter, Kulkiren lehen bilzar nagusian, heldu den azaroaren 12an, 19:00etan, Kirol ostatuan bixtan dena.

## Pilota

Sebastien Gonzalezek, Belokiren kontra galdu duen arren 22-13, bigeketa pollit bat egin du lau terdiko txapelketan. Final laurdeneko atearen aintzinean oporegin badu txapelketaren hautuzko baten kontra, ohartarazi behar da aintzineko partidari Xala irabazi duela, 22-14. Emaizta horien arabera, Sebastianek erakutsi du eskuz binakako txapelketan parte hartzea merezi duela.

## Mutxikoak

Mutxikoak plazan, azaroaren 9an, igandearekin, 11:00etatik goiti, Ikasleak antolatuturik.



ARGAZKIA: XAMO

Saskibaloi elkarteko minim taldea.

Okindegia
Jatetxea

# Uxoá

**OKINDEGIAN**

- Ogi artisaia, egunekoa eta txapata

**JATETXEAN**

- Menua eta karta (asteburuetan)
- Especialitate parrilas erretako jakietan

*Elkartasun gero, bidetara agian, kan erret, gero gero!*

Ordaki Industrialdea - Tfno: 948 45 34 02 - 21112 ARIZKUN

## MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

### ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

### IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

### GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

**KONTSULTA ORDUTEGIA**  
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

**San Marcial, 7-4 IRUN**





## EZKONTZAK

**Francisco Javier Calvo Lasaga** eta **Pilar Martikorena Danboriena**, Berakoak, urriaren 11n.

**Jesus Manuel Nuñez Rivero** eta **Maria Carmen Lozano Gonzalez**, Irungoak Beran, urriaren 11n.

**Ignacio Maria Loinaz Serrano** eta **Aitziber Muxika Bikuña**, Donostia eta Errenterikoa, urriaren 11n.

**Fermin Larralde Larregi** eta **Ana Maria Goñi Elorga**, Iruña eta Elizondokoa, urriaren 4an

**Miguel Barrenetxe Irigoien** eta **Maria Bernardette Bertiz Ariztegi**, Iruña eta Iruiritakoa, urriaren 11n.

**Iñigo Gaztelu Lopes** eta **Raquel Gabán Perez de Eulate**, Donostiakoak Leitzan, urriaren 5ean.

**Bernardino Claudio Cortes** eta **Iratxe Esnaola Goienetxea**, Leitza eta Berastegikoa, irailaren 27an.

**Miguel Angel Maiora Erasun** eta **Katixa Oteiza Mendiberri**, Gaztelu eta Narbaratekoa, urriaren 18an.

**Juan Maria Telletxea Ursuegi** eta **Amaia Ariztegi Eizagirre**, Iruña eta Iturengoa, urriaren 4an.

**Antonio Santiago Lopez Rubio** eta **Maria Fatima Mitxeo Mendiola**, Antsoain eta Gaztelukoa, irailaren 20an.



## SORTZEAK

**Ainara Ibarboure Gallego**, Berakoa, irailaren 30ean.

**Ane Otamendi Abril**, Berakoa, urriaren 5ean.

**Xuban Iturregi Etxeberria**, Iruiritakoa, urriaren 2an.

**Mireia Aleman Azkarraga**, Iruiritakoa, urriaren 8an.

**Eider Gomez Mindegia**, Leitzakoa, urriaren 10ean.

**Maialen Lizasoain Etxebertz**, Donamariakoa, urriaren 1ean.

**Nahia Sarreatea Fagoaga**, Gaztelukoa, urriaren 3an.

**Jon Mikel Opoka Mitxeo**, Gaztelukoa, urriaren 9an.



## HERIOTZAK

**Sabino Goizueta Altamira**, Arantzakoa, urriaren 12an, 70 urte.

**Esteban Agesta Jorajuria**, Sunbillakoa, urriaren 12an, 78 urte.

**Francisca Irurueta Iturralde**, Doneztebekoa, urriaren 13an, 52 urte.

**Paquita Lasaga Irazabal**, Berakoa, urriaren 14an, 90 urte.

**Joxe Juan Portu Iraola**, Lesakakoa, urriaren 14an, 89 urte.

**Maria Cruz Abril Rey**, Elizondon, urriaren 15ean, 96 urte.

**Luciano Mihura Karrikaburu**, Urdazubikoa, urriaren 16an, 96 urte.

**Juliana Velaz Alsua**, Elizondon, urriaren 16an, 91 urte.

**Jose Leon Apezetxea Zubiri**, Goizuetakoa, urriaren 11n, 94 urte.

**Luciano Mihura Karrikaburu**, Urdazubikoa, urriaren 16an, 96 urte.




### Irache Tanatorio taldeak Lesakako Tanatorioa ireki du

ILesakako tanatorio berria Nafarroan Irache Tanatorio Taldeak ireki duen handienetako bat da. Eraikuntza finantziazteko Irache taldeak, Maldaerreka S.L. elkartearen bitartez, Lesakako Udalarekin hitzarmena sinatu zuen. Inaugurazio ekitaldia urriaren 16an egin zen eta bertan izan ziren Juan Fermin Mitxelena, Lesakako alkatea; Juan Jose Unzue, Irache taldeko presidentea; Javier Telletxea, Maldaerreka S.L.ko gerentea eta Alfonso Garzandía, Lesakako apezpea. Zarandia karrikaren 16.ean dagoen tanato-



ria eraikitzeko 360.000 euroko inbertsioa egin da eta 350 metro baino gehiagoko bi solairutan banatu da: bi gela tumuluekin, tanatopraxia-aretoa, egongela, terraza, bulegoak, garajea, erakusketa-aretoa, hiru biltegi eta lorategia. Instalazio berri hauekin, Iruñearen pareko zerbitzuak eskainiko dizkie Irache taldeak Lesaka, Etxalar, Igantzi eta Arantzako 5.000 biztanleei. Gisa honetara, Nafarroako funeraria sektorean nagusi den Irache taldea Nafarroa osora hedatzen ari da.





## BERAko UDALA

AYUNTAMIENTO DE BERA

**U.U.1-eko XEHETASUN AZTERLANA (6. LURZATIA) HASIERA BATEZ ONESTEA: P. ZELAIETA.**

2003ko urriaren 2an Gobernu Batzordeak egindako bilkuran, ondoan dagoen akordioa onartu zuen:

- 1) PATXI ZELAIETA MARTIKORE-NAK aurkeztutako U.U.1eko Xehetasun Azterlana, 6. Lurzatiari dagokiona, hasiera batez onestea.
- 2) Aipatu Xehetasun Azterlana jendeaurrean jartzea 20 eguneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialeko iragarkiaren bidez Irargaki Taulan eta Nafarroan editatzen diren egunkarrietan, bederen, argitaratua.
- 3) Erabaki hau interesatuei eta U.U.1-eko gairontzeko jabeei bidaltzea.

Bera, 2003.00.24  
**Alkatea** / El Alcalde  
 Josu J. Goia Etxeberria

## PILOTA



ARGAZKIAK: JOXELU RETEGI

Haur eta gazte mailako laxoa txapelketetako finalistak, Laxoa Elkarteko kideekin batera.

# Haur eta gazte mailako laxoa txapelketen finalak jokatu ziren

Arraioz eta Doneztebe A txapeldun suertatu ziren Iruritan

A.A.

Urriaren 11n jokatu ziren Iruritako erreboten plazan Laxoa denboraldiko azken bi partidak, haur eta gazte mailako finalak hain zuzen. Goizeko 10etan haur mailako finala jokatu zuten Irurita eta Arraiozek. Etxekoekin Jose Mari Salaburu, Jagoba Ramos, Iñaki Arraztoa eta Iñaki Alemanekin jokatu zuten. Arraioztarrak, Aitor Zubigarai, Igor Retegi, Daniel Saldias eta Garikoitz Larretxea izan ziren. Partida ikusgarria eskaini zuten eta azkenean arraioztarrak gailendu ziren, 4-9. Gan den urtean, Arraiozko taldeak ez zuen partida bakar bat ere irabazi, lau pilotariek lehen aldiz jantzi baitzuten gantea. Aurten, aldiz, txapelketako partida guziaz irabazi dituzte.



Haur mailan, txapelketako partida guziaz irabazita jantzi du txapela Arraiozko taldeak. Gan den urtean, aldiz, partida guziaz galdu zituen.

pelketako partida guziaz irabazi dituzte.

Gazte mailan, berriz, txapela Doneztebera joan behar zen nahitahienez, Doneztebeko A

eta B taldeek jokatu baitzuten finala. Doneztebe A taldearekin Julen San Migel, Santi Mingedia, Txomin Sapupnare eta Joxe Mari Gar-

tziarena aritu ziren. B taldearekin berriz, Pascual Bertiz, Jokin Arraztoa, Javier Bertiz eta Koldo Legarra. Joan den urtean azpitxapelkun izan zen Doneztebe A taldea gailendu zen, 9-5 irabazita.

Honenbertzez, Laxoa denboraldiari akabaila eman zaio bai heldu baita gaztetxoekin mailan ere, baina horrek ez du erran nahi Laxoa Elkartearen eginbeharrak akautu direnik. Negu parterako, bosgarren paxaka txapelketa antolatuko dute. Azaroaren 8an, 18:00etan, bileraren egina du Laxoa Elkarteari Iruritako Iñezture elkartean. Bertan izen emateko aukera izanen da eta txapelketako arauak banatuko dira.

## FLASH

## Lau terdiko pilota txapelketa

Esku Pilota Enpresen Ligak antolatutako lau terdiko pilota txapelketa aitzinera doaie. Eskualdeko pilotariei dagokienez, Oinatz Bengoetxea leizarra eta Mikel Goñi oronoztarra txapelketatik kanpo gelditu dira, Nagore eta Kokaren kontra galdu ondotik. Sebastien Gonzalez azkaindarrak Xalari irabazi ondotik galdu egin zuen Belokiren kontra. Asier Olaizola goizuetarrak irabazi egin zion Galarza V.ari eta aste hondar honetan Tintinen kontra jokatzekoa zen. Irabazleak Unanueren kontra jokatu beharko du, finalerdietako ligaxkarako txartel baten bila. Abel Barriola-leizarra eta Aimar Olaizola goizuetarra azaroaren lehen aste hondarrean sartzekoak ziren jokoan. Baina lesioaren ondorioz, Aimarrek ez du jokatu eta Beloki eta Eugiren arteko partidaren irabazlea zuzenean sartuko da finalerdiko ligaxkan. Barriolak, berriz, Capellan eta Martinez de Irujoren arteko partidaren irabazlea izanen du arerio finalerdiko ligaxka horren bila.

## Gure Txokoako futbol talde nagusia lider

Ligak bartz lehendabiziko partiduetatik lau irabazi eta bertzea berdinu ondotik, Gipuzkoako Erregionaleko lehen mailan lider da Berako Gure Txokoako talde nagusia. Baztan eta Beti Gazte saiklapenaren erdialdean daude eta Leitzako Aurrera azkenaurrekoa da Nafarroako Preferentetan.



## MENDI DUATLOIA

# Mitxel Aginaga Nafarroako txapeldun seigarren aldiz

Narbartearrak urriaren 12an Gartzainen egindako lasterketa irabazi zuen

A.A.

Urriaren 12an jokatu zen Gartzainen hamarren mendi duatloi lasterketa, azken urteetan bezalaxe, Nafarroako txapelketa erabaki duen proba. Mitxel Aginaga narbartearrak pronostikoak bete zituen eta lasterketa irabaztearekin batera, Nafarroako txapelketa irabazi zuen senior mailan seigarren aldiz. Bortz kilometro lasterka, hamabortz mendi bizikletan eta azkeneko bi kilometro terdiak berriz ere lasterka egin behar izan zituzten partehartzaileek eta Aginagak ordubete, lau minutu eta 21 segundu aski izan zituen lana akautzeko. Antonio Garcia Moreno izan zen bigarren, ordubete eta zazpi minutuko denborarekin, Aginagatik bi minutu eta 39 segundura, beraz. Hirugarren postua Eduardo Jimenezentzat izan zen, ordubete, zortzi minutu eta 34 segunduko denborarekin. Honenbertzez, 23 urtez behetiko Nafarroako txapela ere Jimenezek eskuratu zuen. Saillkapen orokorrean laugarren izan zen Jesus Zamora osatu zuen senior mailako podiuma. Hogeita hiru urtez behetiko kategorian, berriz, Joseba Iruzun izan zen bigarren, saillkapen orokorrean hamekagarren izanagatik eta hirugarren postua Ibai Rozasentzat izan zen. Ju-



ARTXIBOKOA

Mitxel Aginagak erakustaldi ederra eman zuen Gartzainen Pilarika egunean.

nior mailan, Eric Garcia Esozia izan zen txapeldun, eta saillkapen orokorrean ere meritu handiko seigarren postua eskuratu zuen, ordubete, hamabi minutu eta 55 segunduko denborarekin. Bigarren postua Iban Urtaşunek eskuratu zuen. Beterano mailan, azkenik, Carlos Arteta izan zen irabazle, ordubete, 29 minutu eta 53 segunduko denborarekin eta bigarren postua Roberto Arria-

zurentzat izan zen, ordubete, 30 minutu eta 23 segunduko denborarekin.

Guzira 22 kirolari aterra ziren Gartzaingo proban, emakume bakarrik ere gabe.

Mitxel Aginaga gus-tora ageri zen garaipenarekin eta espero baino errexagoa izan zela onartu zuen: «Azkeneko urteetan arerio nagusia izan dudana Pablo Arrastiak ez du parte hartu. Lehenbiziko las-

terka saioan hiru lagun joan gara aitzinetik eta berdin xamar akitu dugu. Gero bizikletarekin hiru minutuko alde ateratu eta azkeneko lasterka saioan lasai joan naiz. Bertze urtetako denbora hobetu dut, aurreten ibilbidea idorra zegoen eta horrek ere lagundu du». Green Cup-erako baliagarriak diren Errioxa eta Euskadiko txapelketetan parte hartzeko azen asteotan Mitxel Aginaga.

## FLASH

### Nafarroako aizkolari txapelketa

Nafarroako Herri Kirol Federaziotik jakinarazi dutenez, Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketaren finala azaroaren 16an, eguerdiko 12:30etatik aitzinera jokatuko da Lekunberrin. Jaialdi berean, Euskal Herriko gazte mailako txapelketa ere erabakiko da. Aitzinetik, azaroaren 9an, Nafarroa eta Gipuzkoako aizkolarien arteko norgehiagoka jokatuko da Aldatzen.

### Toki-Ona Bortzirriak saskibaloitaldeak

Nafarroako Kirol Jolasetako lehen partida irabazi zuen urriaren 18an Berako Toki-Ona Bortzirriak taldeak, mutilen junior bigarren mailan. Berako taldeak 53 eta 46 irabazi zion Noain Saskibaloitaldeari Beraz, denboraldiari ongi ekin dio Berako taldeak. baina taldetik berezia egin zaie saskibaloian aritu nahi duten hamabi urtez goitiko neska-mutikoei. Horretarako, Toki-Ona kiroldegira hurbildu behar dute astelehen eta asteazkenetan, 18:30etan.

### Pala motza txapelketa Lesakan

Arkupe pilotazaleen elkartek antolatutako pala motza txapelketako final laurdenak jokatuko dira azaroaren 1ean Lesakako udal pilotalekuan. Zozaiia-Ibargarai, Dumoulin-Belestin, Garcia-Garcia eta Ezkerro-Etxeberria izanen dira final laurdenetan. Nesken paleta goma txapelketa ere azken txanpan sartua da.

# AGENDA egunez egun

## ZINEMA

### BERA

Urriaren 30ean «Nómadas del viento» filmea ikusgai, Kultur Etxean 20:30etan.

## ANTZERKIA

### BERA

Urriaren 31n Lixoia ostatuan EBEL taldeak «Baserritik baserrira» lana aurkeztuko du 22:00etan.

**Azaroaren 7an** Ramon Agirreren «Zazpi gezur txiki»  
**Azaroaren 14an** Gilkitzaroren «Elevator». Kafe Antzerki Zikloaren bamean

## KONTZERTUAK

### BERA

**Azaroaren 1ean** arratsaldez YPAVSKA Abesbatza Kultur Etxean eta gauerdian Petti Bidaxkan.

### SARA

**Azaroaren 8an** BKBO eta Izate taldeen kontzertua Herriko Etxeko Edantegian.

## OSPAKIZUNAK

### BERA

**Azaroaren 1 eta 2an** Lurraren Eguna. Xehetasunak 9. orrian.  
**Azaroaren 9an** Berako Txistu Eguna.

### ARANTZA

**Azaroaren 1ean** Baserritarren Eguna. Xehetasunak 13. orrian.

## IKASTAROAK

### LESAKA

**Azaroan** Geriatria ikastaroa antolatu du Herri Eskolak. Xehetasunak 10. orrian.

## DANTZAK

### AZKAIN

**Azaroaren 9an** Mutxikoak Plazan, 11:00etan, Ikasleak antolatutik.

## TELEBISTAKO TXOKOA



MIGEL URROZ KUTXARA EGILEA

# Eskulangileen altxorrak ttipi-ttapa telebistan

Denbora batean hagitz hedatuak zeuden lanbide batzuk guttinak guttinaka galtzen ari dira. Erraterako, gero eta guttiago dira eskulangintzan aritzen direnak eta gelditzen direnak jubilatutako dira gehienbat. Urtetan arituak izaten dira beren lanean, baina gaur egun inguruko feria eta merkatutan beren lanak erakutsi eta banaka batzuk sald bertzerik ez dute egiten. Hala ere, aberastasun handia direnik ezin ukatu. Duela urte batzuk hain estimatuak ziren lanak orain apaingarirako bertzerik ez dira erabiltzen, baina altxo gisa hartzen dira leku aunitzetan.

Joseba Olagaraik ortziralerako

prestatutako erreportaiari Oitzera hurbildu eta Migel Urrozekin elkartuko da. Ezpelarekin aritzen da Migel eta kutxareak, tenedoreak, segapotoak, aizkora kiderrak eta bertze hainbat gauza egiten du. Gainera lan hau eskuz egiten segitzen duen bakarra da.

### ARANTZAKO BASERRITARREN EGUNA, BERAKO LURRAREN EGUNA...

Elizondoko azienda feriaren ondotik, bertze gisako ferien txanda izanen da aste hondar honetan. Beran Lurraren Eguna eta Arantzan Baserritarren Eguna ospatuko dituzte eta bi egun berezi hauek irudiak bilduko dira.

## DISKAK



«Libre ©»

### BERRI TXARRAK

GOR DISKAK, 2003

Berri Txarrak-en laugarren lana da hau, zuzeneko zein kantu freskoak direla medio euskal rockaren erreferentzia bihurtu den taldea. Ez dira aunitz rockaren alorrean, zerotik hasi eta 10 urtetan formazio berarekin honelako eboluzioa garatu dutenak. Berriren soinuan beti egon da bikoiztasun hori, ez dute inongo konplexurik disko berean «Espero zaitzaket» bezalako muturrekoa edota «Izena, izana, ezina» emo-rock lezioa bata bertzearengibeletik sartzeko. Den ongi lotuta gelditzen da diskoaren baitan eta bertze bi kantu gogoangarri dira aitzinetik duten zerrenda lodiari gehitzeko. Kaki Arkarazoko izotza, disko honetan luxuzko kolaborazioa izan dute: Chicagoko Rise Against taldean aritzen den Tim McIlrath-ena. «Denak ez du balio» kantuan abestu du Tim-ek, ingeleraz eta... euskaraz!

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Urriaren 10etik 17ra bitarteko prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 19,00 € (=)

**Zerri gizona**  
0,863 € kilo. (-0,047 €)

**Zerramak:**  
0,42 € Kg/bizirik. (=)



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,04 (=)

**1.koa** 2,92 (=)

**2.koa** 2,79 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,06 (=)

**1.koa** 2,98 (=)

**2.koa** 2,84 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

### Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruak 220,00 €(=)

idixkoak 225,00 €(=)

### Aretze nabarrak:

urruak 182,00 €(=)

idixkoak 206,00 €(=)

### Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,75/2,90

Zaldi-behorrak: 1,75/1,86

### Bildotsak: €/k

6-8 kiloak: 7,90 / 8,00

8-10 kiloak: 6,45 / 6,75



### JAKIN BEHARREKOAK

# Etkez etxeko salmenta

Etkez etxeko salmenta hagitz zabalduak dago. Aspalditik egiten dira herrialde guztietan. Etkez etxe saltzea ez dago debekatua, alderantziz, ongi araututako jarduerara da.

Legearen arabera, etkez etxeko salmenta erraten zaio saltokitikanpo egiten den eskaintzari. Salmenta hauek toki aunitan egiten ahal dira: etxe pribatuetan, biltokietan, lantokietan... Batez ere, entziklopediak, etxeko tresna txikiak, kosmetikoak eta garbikariak izaten dira. Produktu hauek erostea arriskutsua izaten ahal da kontsumitzailearentzat, ez baitago bertze produktuekin konparatzerik. Beraz, ez dakigu produktu hobeak edo merkeagoak ba ote dauden. Gainera, saltzailak produktu bakarria izaten du erosleari erakusteko.

Saltzailak oldarkorak izan ohi dira, hau da, saltzeko teknika gogorra erabiltzen dute. Eta bezeroak ia-ia ez du kontratua irakurtzeko astirik izaten. Sinatu eta kito. Gogoeta egin edo kontsultatzeko astirik ez du. Baina horregatik dago zorrotz araututa etkez etxeko salmenta: arras salmenta berezia delako eta eroslearentzat arriskutsua izaten delako. Arau horietako batzuk interesgarriak dira eta merezi du eza-gutzea. Ikus dezagun zer dioen legeak. Erosleak kontratua sinatu arren, salerosketa bertan behera uzteko eskubidea du bertze azalpenik gabe. Kasu horretan, salgaia zazpi egunen barronean itzuli behar



**Kosmetikoak eta garbikariak, entziklopediak edo etxeko tresna txikiak dira gehien bat etkez etxeko salmentaren bidez saltzen direnak.**

da, jasotzen denetik kontaktzen hasita. Gainera, enpresak berak eman behar dio bezeroari eskubide horren berri, eta erosleak sinatu behar duen laukitxoaren gainean azaldu behar da. Etkez etxeko saltzailak ongi ez hartzeko arrazoirik ez dago. Berriak lanean ari dira.

Baina zerbait erosi nahi baduzu, begira ezazu agiri guziak zuzen ote dauden. Ez ahantzi gure aholkuak eta erosketa ona izan! -Saltzailak bisita egiten dizunean, komenigarria da agiririk ez sinatzea. - Sinatzen baduzu, kontratua baliogabetzeko zazpi egun dituzu, salgaia jasotzen duzunetik.

**Euskaldunon Kontsumo Aldizkaritik** (10. zbkia, 2003ko iraila)

*Saltzailak bisita egiten dizunean, komenigarria da agiririk ez sinatzea. Sinatzen baduzu, kontratua baliogabetzeko zazpi egun dituzu, salgaia jasotzen duzunetik.*

# AGENDA egunez egun

### ERAKUSKETAK

#### BERA

**Urriaren 24tik azaroaren 8ra** Haurren begiradak erakusketa Kultur Etxean, astelehenetik larunbatera, 18:00etatik 20:00etara. Angela Mejias eta Antonio di Bellonio argazkilariek munduko haurrei ateratako argazkiak biltzen ditu erakusketa honek.

#### URDAZUBI

**Azaroaren 20a arte** Courougnon frantziarraren margo erakusketa monastegian.

#### LESACA

**Azaroaren 10etik 15era** «Nafarroako historia berria dokumentu klandestinoetan» erakusketa Herriko Etxean, 17:00etatik 20:00etara.

### MENDI IBILALDIAK

#### BAZTAN

**Azaroaren 2an** Almandoz-Almandoz ibilaldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek. **Azaroaren 9an** Auritzera ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek.

#### ZUGARRAMURDI

**Azaroaren 9an** Auza-Erratzu ibilaldia egingen du Atxuria mendi taldeak.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### 112 TFNORA. DEITU

#### Urri. 27tik azaroaren 2ra

Bera (A. Fernandez), Igantzi, Doneztebe (M. Etxarte), Irurita, eta Leitza (M. Plaza).

#### Azaroaren 3tik 9ra

Bera (A. Lasaga), Doneztebe (S. Larraioz) Oronoz-Mugairi, Arizkun, Leitza (O. Erbiti) eta Goizueta.

#### Azaroaren 10etik 16ra

Lesaca (L. Marin), NARBATE, Elizondo (Iturralde) eta Leitza (A. Gimeno).

### ALDIZKARIAK



#### EUSKAL HERRIA

6. zbkia, Urria-Azaroa

Karrikan da Sua argitaletxeak bi hilabetero karrikaratzen duen Euskal Herria aldizkariaren sei-garren zenbakia. Aldizkari honetan, Santiago Bide ezberdinak aztertzen dira bere ibilbide eta historiarekin. Tartean, Urdazubi eta Baztanetik igarotzen den bidea. Horretaz gain, garai bateko elurzuloei buruzko historia ilustratua ageri da. Kanada inguruan, *Euskaldunen Irla* izenez ezagutzen den balezaleen irlaren berri ere ematen da. Errioxar Ara-

bako ardo bodegetara bisita egiten da, bertako ezaugarriak eta telefonoak bilduz. Energia berriztagarrien inguruko erreportaia, haize eta uraren birtartez lortutako argindarraren berri ematen da. Gastronomía tartean, ahatekiaren inguruko jakingarri eta errezetak ageri dira. Akautzeko, Euskal Herria mendebaldetik ekialdera igarotzen duen zeharbidearen 13. etapa ageri da aldizkarian, Belete eta Urkiagako gainen artekoa.

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa igorri faxez edo postaz.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak

### ETXEBIZITZAK

#### 101 Saldu

**BERA.** Pisua salgai, poliki-roldegiandoan. Hagitz eguzkitsua eta kalefakzioarekin. Nahi izanez gero, garajea ere bai. ☎ 948 630579.

**LEITZA.** Pisua salgai ganbara rekin. Sukalde ekipatua eta bainugela berria. ☎ 948 510056 (arratsaldez).

**IGANTZI.** Etxe adosatua salgai, 3 solairu, erdi moblezatua. 3 logela, 2 komuna, sukaldea mobleekin, ganbara... ☎ 948 637783 (19:00-21:00).

**DONEZTEBE.** pisua salgai. Garajearekin eta moblezatua ☎ 948 450040).

**ARIZKUN.** Pisu moblezatua salgai prezio onean. Trastero eta garajearekin. Sarteko moduan. ☎ 639 012085.

### ADOS

- **BERA.** -Terreno bat erosi nahi da. - Beran pisu bat erosten da.
  - **DONEZTEBE.** - Santa Luzia plazan apartamentu berriak 17.000.000 pta. - Ostiz denda ondoan pisu berria salgai. - Terreno eraikigarria salgai. - Bigarren eskuko 7 pisu salgai.
  - **ELIZONDO.** - Pisu pare bat salgai - Terreno bat erosi nahi da.
  - **LESACA.** - Pisu pare bat salgai - Terreno bat erosi nahi da.
- BAZTAN-BIDASOAN: borda eta baserriak erosi nahi dira. Zonaldean borda, baserriak, lur-eremuak... erosi nahi dira.

948 451 841 / 607 978 656

### BULDAIN LEITZAN

Patxi Arrazolan, 3 pisu salgai. Bat garajearekin.

☎ 649 476 615  
☎ 948 510 534 bulegoa

### ETXEBIZITZAK

#### 103 Errentan eman

**DONEZTEBE.** Erdi-erdian pisua errentan ematen da. Berritua eta kalefakzioarekin. ☎ 619 980909 edo 646 403367.

### ETXEBIZITZAK

#### 104 Errentan hartu

**BERA.** Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 660 698567.

### GARAJE/LOKALAK

#### 109 Errentan eman

**ELIZONDO.** Paularena inguruan, garajea errentan emateko. ☎ 948 581009.

**DONEZTEBE.** Herri sarrean lokala errentan emateko. ☎ 630 510918.

### LURRAK/ORUBEAK

#### 112 Saldu

**ARIZKUN.** 2400 m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai. ☎ ☎ 686 904427 edo 948 453033.

### LURRAK/ORUBEAK

#### 113 Erosi

**ELIZONDO-ELBETE.** 2000 m<sup>2</sup>ko lur eremua erosiko nuke. ☎ 690 621836.

### LANA

#### 301 Eskariak

**Emakume batez** asteburuetan lan eginen luke, garbiketa lanetan eta jetetxeko sukaldean laguntzaile. ☎ 676222055.

#### Emakumea eskaintzen da

9:00etatik 17:00etara lan egiteko, haurrak edo adinekoak zaintzen, etxeko lanak... ☎ 690 001667 (Natalia).

### LANA

#### 302 Eskaintzak

**Bi neska behar dira** Irungo jatetxe batean, egun erdiz lan egiteko. ☎ 659 585620.

**Hondarribian emakume bat behar dugu** haurrak eskolara eraman eta etxeko lanak egiteko. Goizez. ☎ 943 111380.

**Neska edo emaztekoa behar da** Dantxarinean ostatuan larunbat eta igandetan lan egiteko, orenka, egun erdiz edo egun osoa. ☎ 948



### BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Sukaldean erabilitako olioien  
bilketa egunak

**2003ko azaroaren 6an**

Lesaka . . . . .9etatik 12etara  
Igantzi . . . . .13:00etan  
Arantza . . . . .14:00ak arte

☎ 948 635 254 - Etxalar

599045.

**Gidariak,** Udaletxe eta Foru Aldundietan lan egiteko. Presta zaitetz. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Haur Hezkuntza, haurtzaindegi eta eskola publikoetan** lanpostuak. Presta zaitetz. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Administrari laguntzaileak,** Zarautz, Irun, Hernani eta Andoainean 10 lanpostu libre. Presta zaitetz. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Suhiltzaileak,** lanpostu libre. Baldintza ekonomiko ezin hobek. Presta zaitetz. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Lorezainak, harreragileak,** mantentze-lanak, 10 lanpostu libre Hernani, Arrasate eta Aretxabaletan. Presta zaitetz. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Laborategi teknikari eta laguntzaileak.** Udaletxetan Erakunde Ofizialetan lan egiteko lanpostu libre. Presta zaitetz. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**ROSA BELZUNEGI  
PSIKOANALISTA**  
Kontsultarako eskatu ordua  
☎ 948 272011 (IRUÑA)  
☎ 948 580975  
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

lan egiteko lanpostu libre. Presta zaitetz. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Fisioterapeutak,** Erakunde Ofizial, geriatriko eta Egunerako Zentruetan lanpostu libre. Presta zaitetz. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Basozainak,** lanpostu libre. Natura ingurunean lan eginezazu. Presta zaitetz. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Udaltzaingoa,** 17 lanpostu libre. Hondarribia, Hernani, Lasarte eta Eibarren. Presta zaitetz. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

### MOTORRA 501 Salerosketak

**Rieju RR motoa** salgai, 50 cckoa. Urtebetekoa. ☎ 948 630446 edo 635 729858.

**Renault Espace** salgai, N.A.L. ☎ 948 630708.

**Audi A4 1.9 TD** salgai. Ego-

### SAMPI ARAGON ZDANSA

Lur orotariko ibilgailuak (4x4), furgonetak eta autoak erosten ditugu. Eskura ordaintzen dugu

☎ 948450354 - 948625555 - DONEZTEBE - BERA

### MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

#### Bigarren eskuko kotxeak:

Jeep Grand Cherokee, Musso 5 atekoa, Mitsubishi Montero 3 eta 5 atekoa, Opel Combo, Suzuki Grand Vitara SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN



**L n l z Itz**

**L NESK INTZ**  
U I X t F R J  
I u n t n l n t k .

**GI IK**  
r s t z t z

**SUHILTZ ILE K**  
l n z k n m k  
z n k

**S Z IN K**  
N e u r n u r u n n  
l r n z z u

**L NESK INTZ**  
Z n t r u u l k t  
h u r t z n n t n l n  
t k l k l s t r .

**H U**  
**HIZKUNTZ**  
Esk k z u n F I

**FISI TE EUT K**  
s k t z  
t z h r t z t r l n  
t k l k  
r h l .

r s t z t z . h k n f r m z .  
**1 5**

era hagitz onean. Larruzko eserlekuak. Gris metalizatuak. ☎ 666 407214.

**Nissan Terrano II TDI 2.6** salgai, Diesela, NA-0269-AT. ☎ 948 631397.

**Nissan Patrol 2.8** salgai, 6 zilindrokoa, direkzio lagundua. 130.000 km, 7 urte. ☎ 943490324 edo 619576606.

**Honda CRM motoa** salgai, 125 cc, 7.000 km, 7 urte. Matrikulatua. ☎ 943490324 edo 619 576606.

**Citroen Xsara autoa salgai**, 2 urtekoa, gasoila eta 2000HDI motorra, bi atekoa. ☎ 626 772127.

**Renault Scenic 1.9DCI4x4** autoa salgai. 40.000 km, 2001 urtekoa. ☎ 943631936 (gauez) edo 615 796291.

**Audi A3 1.8** gasolinako autoa salgai. 70.000 km, 1997koa. ☎ 948625474 edo 948630631.

**Audi A3 1.9TDI** autoa salgai, 110cv. NA-BB matrikula, CD eta extrak. Egoera oso onean. ☎ 696 276816.

**Opel Astra DTI 2.0** autoa salgai. Hiru urte, hagitz-hagitz egoera onean. ☎ 661 845045 edo 627 457434.

**VW Golf TDI 110** zaldikoa salgai. Egoera arras onean. ☎ 686 904427 edo 948 453033.

**Ford ZALAIN MOTOR**  
Zalain auzoa / BERA / 948 63 11 57

**URTE 1eko GARANTIA**



**FORD FOCUS AMBIENTE 1.8 TDI 115 CV 5 ATEKOA**  
2002/08, grixia, 19.847 km, EE, CC, DA, ABS, AA, 4 Airbag +IPS, 5.000 Irratia, ispilu elektrikoak, eta aba... **FABRIKAKO GARANTIA.**

**FORD KA 4 1.3i 60 CV 3** atekoa 2002/06, 16.446 km, EE, CC, AA, DA Airbag, 100 irratia... **garantia 12 hilabete.**

**Ford Mondeo Ghia 2.0 TDI 115 CV** familiarra 2001/06, beltza, 45.224 km, EE, CC, DA, Klima, ABS+EBA, 6 Airbag+IPS, llantak, Xenon, GPS nabegatzailea + 6 CD... **Garantia a12 hilabete.**

**Ford Mondeo Ghia 2.0 TDI 115 CV** familiarra 2001/06, urdina, 42.114 km, EE, CC, DA, Klima, ABS+EBA, 6 Airbag+IPS, llantak, Xenon, Nabegaxor GPS, 6 CD... **garantia 12 hilabete.**

**Ford Mondeo Ghia 2.0 TDI 115 CV** familiarra: 2001/03, grixia, 39.955 km, EE, CC, DA, Klima, ABS+EBA, 6 airbag +IPS, 6 CD, Xenon, llantak, Gar. 12 hilabete

**Ford Focus Ghia 1.8 TDI 90 CV** Familiarra: 1999/09, urdina, 79.106 km, EE, CC, DA, AA, 2 Airbag, 5000 irratia... **Garantia 6 hilabete. Merke.**

**Ford Focus Ambiente 1.8 TDCI 115 CV** Familiarra 2002/11, grixia, 15.644 km, EE, CC, DA, AA, ABS+IPS, 4 airbag, 5000 irratia, ispilu termoelektrikoak... **12 hil. gar.**

**Ford Focus Ambiente 1.8 TDI 90 CV 5** atekoa 2002/07, xuria, 26.476 km, EE, CC, DA, AA, ABS, 4 airbag, 5000 irratia, ispilu termoelektrikoak... **Gar. 12 hilab.**

**Ford Focus Trend 1.8 TDDI 90 CV 5** atekoa 2000/10, grixia, 27.936 km, EE, CC, DA, ABS, 4 airbag, 5000 irratia, llantak... **Garantia 12 hilabete.**

**Ford Focus Trend 2.0i 16v 130cv 3** atekoa 1999/08, urdina, 78.041 km, EE, CC, DA, AA, ABS+KT, 4 airbag, 5000 irratia, llantak... **Garantia 6 hilabete. Merke.**

**Citroen Xsara SX 1.9 TD 90 CV** familiarra 1998/06, 86.122 km, EE, CC, klima, airbag, irratia, **garantia 6 hilabete. Merke.**

Seat Ibiza 1.7i, Fiat Uno 1.7 D, 2 Opel Kadett 1.7 D eta Toyota Karina 2.0i, **merke, merke.**

**IBILGAILUEN ERAKUSKETA**  
Bigarren eskukoak eta KMO

**ETORRI, ETA ZUK ZEUK IKUSIKO DITUZU**

**GIZ L E**  
z r t z r t z u k

**Etxez Etxeko Laguntza Programa**

**ZERBITZUAK**

- Laguntza pertsonala
- Laguntza etxeko aferetan
- Laguntza psikologikoa eta gizarte arloan
- Prebentzio eta errehabilitazio mailan

**ESKAINTZEN DUGUNA**

- o Erosotasuna
- o Profesionaltasuna
- o Kalitatea
- o Ordu-tegi malgua
- o Hurbiltasuna
- o Iraunkortasuna eta bizkortasuna
- o Segurtasuna
- o Osotasuna

Domekenea - **NARBARTE** • ☎ 948 592 499  
gizalde@euskalerrria.org



**DONEZTEBE**

**AZKEN HIRU APARTAMENTUAK SALGAI.**  
17.000.000TIK GORA (BEZ barne).  
2004ko MARTXOAN EMATEKO.

**ADOS INMOBILIARIA**  
☎ 948451841 - 607978656

**ANIMALIAK**  
**601 Emateko**  
**Zakur xarboxo bat** oparitzeko Arantzan. ☎ 658 728717.

**ANIMALIAK**  
**602 Salerosketa**  
**Hiru ardi** urte betekoak mutul beltzarekin eta ahare bat hiru urtekoa. mutur horia, adarrik gabekoa salgai. ☎ 617 985074.

**Sei hilabeteko zaldikoa** salgai. Arraza hispano-arabiarra. ☎ 948 510227.  
**Leitzan setter arrazako txakurkumeak** salgai. Aita eta ama oilagor ehiztariak. 2003ko ekainaren 13an jaioak. ☎ 620 163517.

**Oilagor ehizarako zakurkumeak** salgai, setter arrazakoak. Gurasoak ehiztari bikainak. ☎ 630 709195 edo 646 329693.

**Oilagor ehiziko setter zakurra** (bi urte bete gabea) salgai. Merke. ☎ 948635079.

**DENETARIK**  
**701 Galdu-aurkituak**  
**Kotxe giltza bat** aurkitu da Toki-Onako aparkalekuan. ☎ 948 625000.

**Hegazkin telegidatua** galdu da Beran Euskalduna inguruan. Hegalak horiak eta kabina xuria. ☎ 635 696688.

**Katu pertsaxuria** galdu da Berako Herriko Etxeko Plazan, begi horikoa eta lepoko marroiarekin. ☎ 615 740231 (sarituko da).

**DENETARIK**  
**702 Salerosketak**  
**Agria traktorea** salgai, 30 zaldikoa, traxiodun karroarekin. ☎ 666 914359.  
Seat Leon Sport-Limitedatuaren **15"-ko llantak** sal-

gai. Firestone markako gurupilak 195-65-15. Tornilloak anti-rotor eta guzti. Dena erabil gabea. Prezio negoziagarria. ☎ 686 316397.

**Zepilladora konbinatua** salgai, hiru lan egiten dituen eta tupi bat salgai. Bigarren eskukoak. ☎ 617 985074.

**90 cm. ko bi ohatze** salgai Arantzan, txuriedo marfil kolorekoak, literak egin daitezkeenak. Kolore bereko bi armario ere ohatzarekin batera. Prezioaz solastuko dugu. ☎ 687 609664.

## Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.



**XUBAN LARRETXEA ALTZUGARRAI** lesakarrak 6 urte bete ditu urriaren 28an. Zorionak familia guztiareb partetik.



**RAKEL LANZ URTXEGI** beratarrek 4 urte bete ditu urriaren 22an. Zorionak familiaren partetik.



**NAIARA LUKAMBIO OTXOTEKO** lesakarrak urtea bete-ko du urriaren 19an. Muxu haundi bat Arantzako familiaren partetik.



**GORETTI ORDOKI AGIRRE** beratarrek 4 urte bete ditu urriaren 26an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guziaren partetik.



**ANGEL IRAOLA BERTIZ** beratarrek urriaren 19an urteak bete ditu. Zorionak anai eta iloben partetik.



**UNAI SAPUPPO ALEGRIA** doneztebarrak 10 urte bete ditu urriaren 18an. Zorionak amabxiren partetik.



**ANDONI EIZAGIRRE ZUBIETA** irundarrak 6 urte bete ditu urriaren 27an. Zorionak eta muxuak familiaren partetik. Agur «Dantzarino».




**AITOR BENGOMETXEA OLAITXEA** lesakarrak 14 urte bete ditu azaroaren 12an. Zorionak familiaren eta bereziki Jokinen partetik.




**MAITE ETA XABIER ARRAZZA LAZKANOTEGI** beratarrek 6 urte bete dituzte urriaren 17an. Aunitz urtez atxa, ama eta Beñaten partetik.



**JON ETA ONINTZA** beratarrek urriaren 31 eta 23an urteak beteko dituzte. Zorionak eta muxu bana, Amaia, Manex eta Eneritzen partetik.



**OIER ZUBIETA ELGARRESTAK** 2 urte bete ditu urriaren 28an. Zorionak eta muxu haundi bat Oihane, Naroa eta familiaren partetik.



**OIER** leitzarrak 3 urte bete ditu urriaren 25ean. Urte askoz Ane eta Ainhoaren partetik.



**OIHANA LEIZA ALTZUART** beratarrek 5 urte beteko ditu urriaren 31n. Zorionak eta muxu haundi bat atxa eta amaren partetik.



**GANIX MITXELENA** zugarramurdiarrak 7 urte bete ditu urriaren 27an. Aunitz urtez kukuxu! zein goxo pasten diren urteak zure ondoan! Potta bi-hotzean, amatto.



**SARAI ETXARTE** igantziarrak 7 urte beteko ditu azaroaren 6an. Zorionak familia guziaren partetik.



**ISABEL GOIKOETXEA** leitzarrak urriaren 29an urteak bete ditu. Zuk egindako bankete on baten zain gaude. Aurlizko familiaren partetik.



“Zure begiendako,  
jar zaituz esku onetan”

**KIRURGIA:**

Miopia  
Astigmatismo  
Hipermetropia  
Bista nekatua

Zuen poztasuna da  
gure garantiarik onena



Donibane Lohitzuneko Poliklinika: 0033 559 513 144

**San Juan de Luz  
laser**





Ordoki Industrialdea • ARIZKUN  
 Tfnoa.: 948 45 32 59  
 Faxa: 948 45 34 23  
 e-Posta: betikopvc@teleline.es

### 4 arrazoi on PVC jartzeko



#### ISOLAMENDUA



#### MANTENU ERREXA



#### HERMETIKOTASUNA



#### IRAUNKORTASUNA

# Zertarako pasa hotza, soluziorik dagoenean

BETIKOn era guztietako itxierak egiten ditugu, kolore diferentetan, baita haritz, pinu, kaoba, etabar ere

Zaharberritzeak obrarik gabe

Aluminio eta PVC zurgindegia

Fabrikanteak garezuz preziorik onenak eskaintzen ditugu

Estalpe irekia




Estalpe itxia



Portxeak



Kontraleihoak



Leihoak




Deceuninck markaren perfilak kalitaterik handienekoak dira, Aenor eta NFren zertifikatuarekin, bertzeak bertze.



15 urteko garantia.

Eskatu aurrekontua loturarik gabe 948 453 259 telefonoan edo bisitatu gure erakusketa

# Iurraren eguna 2003



## azaroak 1, larunbata

**20:00etan:** Ypavska abesbatza, Kultur Etxean

**00:00etan:** Petti, Bidaxkan

## azaroak 2, igandea

**10,30etan:** Eskulangileen erakusketa eta azoka, barazki erakusketa. Berako borden argazkiak eta ilunabar artio taloak eta gasna

**11:00etan:** Gasna lehiaketa, txalaparta, Berako Trikitixa eskolakoak, Txistulariak eta musika eskolako akordeolariak

**12:00etan:** Sagardo dastaketa eta lehiaketa

**13:00etan:** Gure Txokoako dantzariak

**17:00etan:** Lehiaketen sari banaketa eta enkantea

**17:30etan:** Bertsolariak

(Julen Zelaieta, Amets Arzallus eta Sustrai Colina)

**18:15etan:** Perkusio eta Pop Rock taldeen saioa

**19:00etan:** Dantzaldia Irats taldearekin



**BERA**

antolatzaile: Gure Txokoa elkarte